# Informazio ez-finantzarioaren egoera orria

## 2024

matia

DONOSTIAn, 2025eko apirilaren 29an

# Aurkibidea

Gure lehendakariaren mezua ........ 3

1. Matiari buruz ........ 5

2. Memoriaren irismena ........ 7

3. Asmoa, jomuga eta balioak ........ 11

4. Ingurunearen analisia ........ 13

5. Erronka estrategikoak / Politikak ........ 16

6. Arriskuak eta aukerak ........ 22

7. ISO arauak, jasangarritasuna eta GJHak ........ 23

8. Matiaren materialtasun analisia ........ 25

9. Identifikatutako premiei emandako erantzuna ........ 32

10. Negozio eredua. Erakunde egitura ........ 33

11. Jarduera eta jarduketa aipagarriak ........ 35

12. Sozietatea – Informazio ekonomikoa ........ 38

13. Sozietatea – Hornitzaileak ........ 64

14. Sozietatea – Bezeroei lotutako gaiak ........ 68

15. Boluntarioak – MatiaZaleak ........ 75

16. Sozietateari eta langileei buruzko gaiak ........ 79

17. Giza eskubideak ........ 118

18. Ustelkeria eta eroskeria ........ 128

19. Ingurumenari lotutako gaiak ........ 134

# Gure lehendakariaren mezua



2024. urteko ekitaldian alderdi goraipagarriak izan dira Matia Fundazioan, kide diren profesionalen arrazoimenari esker; beste erakunde batzuk, berriz, inertziaren menpe geratu dira edo gera daitezke. Lehenik eta behin, gure erakundearen asmoaren definizioan izandako aldaketa aipatu behar da, eragina baitu kideen konpromisoan eta etengabeko jardunean.

Iaz, honela adierazi genuen gure asmoa: «pertsonei zahartze prozesuan zehar laguntzea, haien ongizatea hobetzeko eta haien autonomia eta duintasuna sustatuko dituzten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortzeko». Hilabete askotako esperientziak eta lehen aipatutako arrazoimenak asmo hori egokitu beharra ekarri dute. Orain, honela adierazten dugu gure asmoa: «pertsonei zahartze prozesuan zehar laguntzea, haien duintasuna bermatzeko eta haien autonomia modu jasangarrian sustatuko duten ezagutzak, zerbitzu pertsonalizatuak, giroak eta inguruneak sortzeko». Beraz, azpimarragarria da *duintasuna bermatzeko* konpromisoa, bai eta *pertsonen autonomia modu jasangarrian sustatuko duten zerbitzu pertsonalizatuak, giroak eta inguruneak* sortzeko xedea ere.

Hori guztia lotuta dago Matia Fundazioak duela hamarkada bat baino gehiago ekin zion bidearekin, orduan heldu baitzitzaion pertsonarengan ardaztutako arretaren kontzeptuari. Denbora ez da alferrik pasa, eta gaur egun pertsona ardatz duen plangintzan murgilduta dago erakundea. Ildo horretan, gainera, norberaren bizitza eta zaintza planei dagokienez, pertsonen partaidetza eta autodeterminazioa sistematizatu nahi dira, haien duintasuna eta eskubideak bermatze aldera. Aurrerapauso hori emateko, gure tresnak eta antolatzeko sistema egokitu behar ditugu, pertsona ardatz duen plangintza benetan lortze aldera. Horretarako, sei jarduera eremu zehaztu dira, eta ingurunea, kontrola eta lankidetza kontuan hartuta antolatu dira: iraupen luzeko zaintzak —Matia Etxean markapean—; osasuna —Matia Osasun—; Matia Institutua; Kudeaketa; Pertsonak eta Komunikazioa, eta Teknologia.

2023an bi azpiegitura berri inauguratu eta martxan jarri dira, «Lugaritz: bizitza osorako etxebizitzak» eta «Egurtzegi: zaintzadun etxebizitzak». Ekimen horiekin, ezaugarri bereziak dituzten etxebizitzen beharrari erantzuteaz gain, etengabeko ikaskuntza poliedrikoa ahalbidetu da, aurreikusten diren azpiegitura eta proiektu berriei dagokienez.

*Ekosistema* kontzeptua aski ezaguna da. Biologia Zientzien eremuan du jatorria, eta poliki-poliki giza jardueraren hainbat arlotara zabaldu da haren erabilera. Hala, gaur egun pertsonei bideratutako zaintza sistemen parte ere bada. Matia Institutuak hausnarketa egin eta gogotik jardun du ildo horretan lanean. Horrenbestez, 2024an, zahartzearen inguruko arretaren eta zaintzen eremuan, kontzeptu hori ohiko izaten hasi dela esan genezake, batez ere politika publikoetako maila guztietan. Planteamendu hori garatzeak berekin dakartzan balioak, ontasunak eta lorpenak onuragarriak dira arloko pertsona guztientzat, haien adina, egoera eta ezaugarriak edozein direla. Matia Institutuari lehen egindako aipamena zehazte aldera, erakundeak bere ikerkuntza zereginera eraman behar du hizpide dugun planteamendua: landa lanera, berrikuntzara, eredu aldaketara, pertsonen prestakuntzara eta informazioaren zabalkundera. Ildo horretan, askotariko adibideak aipa genitzake, horien artean «Euskadi Lagunkoia». Ekimen hori Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak sustatu eta Matia Institutuak jarri zuen martxan duela hamarkada bat baino gehiago. Adinekoekiko lagunkoiak diren inguruneei buruzko «Age-friendly Environments Programme» OMEk babestutako proposamenean dago oinarrituta. 2024aren bukaeran Euskal Autonomia Erkidegoko 84 udalerri dira ekimenarekin bat egin dutenak, eta 500.000 adineko baino gehiago dira onuradunak.

Matiak, Hirugarren Sektoreko partaide izanik, erakunde publikoekin lankidetzan jarduteko bokazio sendoa du. Matiaren DNAren parte da, XIX. mendeko laurogeiko hamarkadan sortu zenetik. Garai hartan Donostiako Udaleko sindiko zen Ricardo Bermingham y Goenaga jaunak zerikusia izan zuen horretan. Gipuzkoako artxibozain Serapio Mugica jaunak (1854-1941) idatzita utzi zuenez, haren ahalegin desinteresatuari zor zaio, hein handi batean, Matia Asiloaren fundazioari dohaintzan emandako kapitala erreskatatu izana. Kate baten katebegiak gara, eta hala izaten jarraituko dugu.

# 1. Matiari buruz

Jose Matia Calvo Laudion jaio zen, 1806an, eta Cádizen hil, 1871n. Gazte-gaztea zela Filipinetara emigratu zuen, eta han ezagutu zuen, baita geroago zuzendu ere, herrialde horren eta Espainiako metropoliaren arteko merkataritzaren zati handi bat. XIX. mendearen laugarren hamarkadan Espainiara itzuli eta Cádizen finkatu zen. Bertatik zabaldu eta dibertsifikatu zuen bere merkataritza enpresa koloniala, eta nazioarteko bihurtu. 1870ean idatzi zuen testamentu luze bezain zabalean, bere jarduera profesionalaren eta giza eta gizarte harremanen berri ematen zuten datu ugari jaso zituen. Besteak beste, hau zioen testamentuak: bere aberastasun handi haren zati bat bi zahar egoitza sortzeko erabil zedila, bat Cádizen eta bestea Donostian.

Matiak 1881ean ekin zion bere ibilbideari Jose Matia Calvoren legatuari esker eta helburu honekin:

*«Adinduei edota lanerako ezintasun osoa duten pertsonei babesa ematea, baliabideak eskaintzea eta gaixotasunei aurre egiten laguntzea».*

Gaur egun, irabazi asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorreko erakunde izendatua. Patronatua hainbat esparru profesionaletatik datozen 9 pertsona ezagunek osatzen dute, eta independentzia osoz eta borondatez parte hartzen dute haren gobernantzan.

Zerbitzu soziosanitarioak ematea da Fundazioaren jarduera nagusia. Kasurik gehienetan, itunpekoak izaten dira zerbitzuak, EAEko herri administrazio publikoekin elkarlanean emandakoak; hauekin, zehazki:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (gizarte zerbitzuak).
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin (osasun zerbitzuak).

2024an, 33.839 lagun artatu ditugu gure osasun zerbitzuetan, egoitzetan, bizikidetzako unitateetan, eguneko zentroetan eta abarretan.

Enplegu sorrerari dagokionez, 1.684 profesionaleko taldea dauka Matiak. Horietatik % 90 adinekoei edo desgaitasuna duten pertsonei zuzeneko arreta eskaintzen dieten profesionalak dira, eta beste % 10 kudeaketan eta laguntza jarduerari eusteko arloetan aritzen direnak.

Euren denbora eskuzabaltasun osoz eskaintzen duten beste 3.443 lagun ere aritzen dira gurekin, beharra dutenei lagun egiteaz gain, kultura eta aisia jarduerak sustatzen, egunero, gure egoitzetan.

Azkenik, 2003az geroztik, Matia Institutu Gerontologikoaren bitartez jorratzen du Matiak ezagutza sortzeko eta berrikuntza bultzatzeko konpromisoa.

Matia Institutua erreferentzia bihurtu da arlo psikosozialetako ezagutzan eta, batez ere, plangintza gerontologikoan eta pertsona ardatz duen arreta progresiboa ezartzeko jardunean, betiere ebidentzian oinarrituta.

Horregatik guztiagatik, harro esan dezakegu sortzailearen legatuaren inpaktuak hazkunde esponentziala izan duela pertsonekin horren konprometituta dauden Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta, bereziki, Donostian.

## 2. Memoriaren irismena

Matiaren informazio ez-finantzarioaren egoera orriaren memoria da hau. Matia, Matia Servicios Sociales, Gerozerlan SL, Matia Institutua, Zaintzatari, Goxara eta Enea erakundeek jorratutako jarduerak eta emandako zerbitzuak biltzen ditu memoriak. Erakunde horiek guztiak berdintasunez kudeatzen dira, eta, horregatik, txostenaren parte dira.

Matiaren finkatze perimetroak hauek hartzen ditu barne:

| | |
|---|---|
| **José Matia Calvo Fundazioa** | • Helburu soziala: pobreei, adinekoei eta gaixoei arreta ematea.<br><br>• Forma juridikoa: fundazioa.<br><br>• Helbidea: Pinu Bidea 35, 20018 Donostia (Gipuzkoa).<br><br>• IFZ: G-20053583.<br><br>• Erregistroko datuak: G-16, EAEko Fundazioen Erregistroan.<br><br>• EJSN: 86- Osasun jarduerak. |
| **Gerozerlan SLU** | • Helburu soziala: gizarte zerbitzuak eskaintzea adinekoei, desgaitasun fisikoak eta psikikoak dituztenei eta arreta berezia behar duten mendeko pertsona guztiei.<br><br>• Forma juridikoa: pertsona bakarreko sozietate mugatua.<br><br>• Helbidea: Joseba Zubimendi kalea 1, 20015 Donostia (Gipuzkoa).<br><br>• IFZ: B-20787735.<br><br>• Erregistroko datuak: Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko 1987 liburukia, 1. folioa, SS-21404 orria, 1. inskripzioa.<br><br>• Bazkide bakarra: José Matia Calvo Fundazioa.<br><br>• EJSN: 87- Egoitza establezimenduetako laguntza. |

| | |
|---|---|
| **Matia Enea SLU *Matia Servicios Sociales SLU izandakoa** | • Helburu soziala: zahar egoitzak sustatzea (Matia Fundazioaren ondarezko sozietatea).<br><br>•Forma juridikoa: pertsona bakarreko sozietate mugatua.<br><br>• Helbidea: Zarautz etorbidea 123, 20018 Donostia (Gipuzkoa).<br><br>• IFZ: B-20441440.<br><br>• Erregistroko datuak: Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko 1285 liburukia, 1. folioa, SS-5688 orria, 1. inskripzioa.<br><br>• Bazkide bakarra: José Matia Calvo Fundazioa.<br><br>• EJSN: 6831- Higiezinen jabetzako agenteak. |
| **Zaintzatari Matia SLU** | • Helburu soziala: irizpen mediko eta psikologikoak egitea, desgaitasuna baloratzeko eta pertsonen mendekotasuna baloratze aldera (pertsonek berek edo ofizioz eskatuta) beharrezkoa den informazioa lortzeko, dauden zerbitzuak eskuratu ahal izan ditzaten.<br><br>• Forma juridikoa: pertsona bakarreko erantzukizun mugatuko sozietatea.<br><br>• Helbidea: Pinu Bidea 35, 20018 Donostia (Gipuzkoa).<br><br>• IFZ: B10799443.<br><br>• Datuak: 3052 liburukia, 195. folioa, 8. sekzioa, SS 44835 orria, 1. I/A.<br><br>• EJSN: 8811- Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak. |
| **Matia Goxara SLU** | • Helburu soziala: eguneko zentroaren kudeaketa eta adinekoentzako etxez etxeko laguntza. |

| | |
|---|---|
| | • Forma juridikoa: pertsona bakarreko erantzukizun mugatuko sozietatea.<br><br>• Helbidea: Igartzako plaza 6, 3. A, 20200 Beasain (Gipuzkoa).<br><br>• IFZ: B-20737300.<br><br>• Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko SS-19374 orria, 1904 liburukia, 26. folioa.<br><br>• EJSN: : 8811- Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak. |
| **Matia Institutu Gerontologikoa Fundazioa - INGEMA** | • Helburu soziala: ikerketa, garapena, berrikuntza teknologikoa eta zientziaren zabalkundea.<br><br>• Forma juridikoa: fundazioa.<br><br>• Helbidea: Pinu Bidea 35, 20018 Donostia (Gipuzkoa).<br><br>• IFZ: G-20857082.<br><br>• Erregistroko datuak: F-175, EAEko Fundazioen Erregistroan.<br><br>• EJSN: 72- Ikerketa eta garapena. |
| **Zaintzenea SLU** | • Helburu soziala: adinekoen iraupen luzeko egungo zaintza eredua eraldatzeko eta pertsona ardatz hartuta eskubideak eta autonomia pertsonala sustatuko dituen eredurantz joateko zerbitzuak ematea.<br><br>• Forma juridikoa: pertsona bakarreko erantzukizun mugatuko sozietatea.<br><br>• Helbidea: Pinu Bidea 37, 20018 Donostia (Gipuzkoa).<br><br>• IFZ: B-19434448<br><br>• Erregistroko datuak: • Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko SS-47312 orria, 1. inskripzioa. |

| | |
|---|---|
| | • EJSN: 82.99- Beste inon sailkatu gabeko enpresen laguntzarako beste jarduera batzuk. |

Matiak kontrolatzen ditu erakunde guztiak; honela, hain zuzen, banan-banan hartuta:

- **Matia Institutu Gerontologikoa Fundazioa – INGEMA:**
    - Haren sortzailea delako eta abian jartzeko zuzkidura hornitu zuelako.
    - Haren patronatuko kideak izendatzeko ahalmena duelako; izan ere, Matiaren patronatuko kideak izan behar dute, halabeharrez, Matia Institutuaren patronatuko kideek, bertako estatutuetan zehaztuta dagoenez.
    - Matia Fundazioko zuzendaritza taldea arduratzen delako Fundazioaren zuzendaritzaz ere.

- **Gerozerlan SLU, Matia Enea SLU, Matia Goxara SLU, Zaintzari Matia SLU eta Zaintzenea SLU:**
    - Sozietate horien bazkide sortzailea eta gaur egun bazkide bakarra delako; kapital sozial osoaren titularra ere bada.

«*Global Reporting Initiative*» (GRI) delakoaren estandarrei jarraituz idatzi dugu memoria hau —erakunde baten inpaktu ekonomiko, ingurumeneko eta sozialak jendaurrean plazaratzeko jardunbiderik egokienak biltzen ditu—, eta 11/2018 Legean informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren arloan ezarritako betekizunei jarraikiz.

Taxonomiaren arloan ezarritako baldintzak betez (EB 2020/852 Erregelamendua eta EB 2021/2178 eta EB 2021/2139 egintza eskuordetuak), Matia ez da interes publikoko erakundetzat (IPEtzat) hartzen; izan ere, negozio zifraren zenbateko garbia eta batez besteko plantilla ez da 2.000.000.000 eurotik eta 4.000 langiletik gorakoa, hurrenez hurren, ekitaldi bakoitzaren itxiera datan eta segidako bi ekitalditan.

Beraz, ez genuke jarduera hautagarriaren eta ez-hautagarriaren proportzionaltasuna zabaltzeko betebeharrik izango, ezta ekitaldi honetako araudian adierazitako KPI adierazleena ere.

## 3. Asmoa, jomuga eta balioak

### ASMOA

Pertsonei zahartze prozesuan zehar laguntzea, haien duintasuna bermatzeko eta haien autonomia modu jasangarrian sustatuko duten ezagutzak, zerbitzu pertsonalizatuak, giroak eta inguruneak sortzeko.

### JOMUGA

Gizartea eraldatzeko eragile bat izatea, modu jasangarrian erantzun aditua eta pertsonengan ardaztutakoa emango duena zahartzearen eta desgaitasunaren esparruetan.

### HARREMANETARAKO BALIOAK



ARRETAKO BALIOAK



# 4. Ingurunearen analisia

«Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko azterlana 2020» (Del Barrio, Diaz Veiga, 2021) lanaren bidez Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politikako Sailak argitaratutako datuek erakutsi dutenez, hezkuntza maila goraka doa —batez ere unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako ikasketei dagokienez—, gero eta gehiago dira pertsona bakarreko edo biko familiak —familia guztien % 75 ia-ia—, gizarte eta laguntza sarea ahuldu egin da, Interneten eta teknologia berrien erabilerak hazkunde izugarria izan du, eta, batez ere, lehenetsi egiten da laguntza behar izanez gero norberaren etxean bizitzea. Alderdi horiek, beste batzuen artean, oso garrantzitsuak dira zahartzaroaren plangintzari eta etorkizuneko zaintza ereduari heltzeko, eragin zuzena baitute pertsonen osasunari eta ongizateari buruzko autokontzeptuan.

Datuek agerian uzten dute laguntza eta zaintza behar dituzten pertsonek, oro har, ohiko ingurunean eta modu autonomoan jarraitu nahi dutela aurrera beren bizitza proiektuarekin, gaitasunen galera intrintsekoa izan arren. Eta hori posible ez balitz, «etxean bezala» bizitzea eta bizi proiektuarekin aurrera jarraitzea ahalbidetuko dieten aukera esanguratsuen eta ekologikoen (ohiko ingurunearen) aldekoak dira. Europa iparraldeko herrialdeetan duela urte asko utzi dute atzean egoitza instituzioaren kontzeptua, eta gaur egun zaintza eskaintzen duten etxebizitzak dira ohiko etxearen alternatiba. Instituzio ikuspegia deuseztatu eta pertsonak ardatz hartuta (McCromack & McCance 2010; 2017), zaintzak eskaintzen dituzten etxebizitzetan bizimodu duina eta zentzuduna berma daiteke, pertsonek zaintzen beharra izan arren.

OMEren «World Report on Ageing and Health» (2015, 133. or.) txostenean jasota dago —COVID-19aren pandemia baino urte batzuk lehenago— iraupen luzeko egungo zaintza sistemak ez direla gai askoz askotarikoagoa den gizarte errealitate berriaren beharrei egoki erantzuteko. Izan ere, txostenaren arabera, egungo egoera zurruna eta zatikatua da, eta pertsonen beharrak mailaka antolatu nahi dira, ikuspegi mekanizista batetik, zerbitzuen emaileak baliabideak optimizatzera jotzen baitu.

Beraz, hainbat alderdi ez dira kontuan hartzen, hala nola bizi proiektuaren jarraipena, lotura afektiboei eta harreman sozialei eustea, norberaren identitatea, eta pertsona bakoitzarentzat esanguratsua den jarduera. Alderdi horiek guztiak funtsezkoak dira pertsonaren ongizaterako (Cooney, 2012, 9. or.). Gainera, kualifikatutako profesionalen eta finantzaketa eredu jasangarriaren falta nabarmentzen dira.



Aipatutako argumentuetan (OME, 2015) premiazko aldaketa planteatzen zen, proposamen sistematikoagoetara, integratuetara, pertsonen bizitzarekiko ekologikoagoak direnetara, instituzionalizatuta ez daudenetara eta pertsona ardatz dutenetara bideratutako aldaketa, alegia (OME, 2015; Barbosa, Sousa, Nolan eta Figueiredo, 2015; Heenan, Bengoa eta Birrell, 2017; McCormack eta McCance, 2017). Egoera bakoitzean alderdi sendoak baliatzearen garrantzia azpimarratzen da, horietatik abiatuta pertsona horien beharren araberako alternatibak dinamizatzeko. Gainera, badirudi aurrera egiteko elementu komunak badaudela, batez ere zuzeneko arretako langileei dagokienez, aldaketa proposatzen baita haien errutina eta jarreretan, harremanetan, eta diziplinarteko lan interdependente eta deszentralizatuan. Hori hedatzeko nahitaezkoa da antolamendu eta kultura eraldaketa, pertsonen partaidetza sustatuko duen testuingurua, zaintzen gaineko ikuspegi ekosistemikoa kontuan hartuta. Ildo beretik, ezinbestekoa da zaintzak kasuaren kudeaketaren bidez antolatzea, zaintzen jarraipena bermatzea eta osasun sistemaren, gizarte zerbitzuen eta zerbitzu komunitarioen arteko integrazioa lortzea.

Fundazioaren azken hamarkadako jardunean ikusi dugunez, kasu bakoitza kudeatzea, pertsonek beren bizitza eta zaintza planetan parte hartzea eta zaintzarako ibilbide propioak sortzea antolamendu mailako erronka izugarriak dira, hainbat talde, baliabide eta zerbitzu garaiz eta behar bezala koordinatu behar baitira, pertsona bakoitzaren dinamismoa eta aniztasuna direla eta (Leutz, Bishop eta Dodson, 2010).

Sekulako antolamendu malgutasuna eta egokitzeko ahalmena behar dira pertsona bakoitzak bizimodu autonomo eta propioa izaten jarrai dezan egin beharreko kasuen kudeaketarako —hedatu eta orokortzeko— (Bishop, 2014; Kitson, Marshall, Bassett eta Zeitz, 2013). Egoera berriak azaltzen dira etengabe eta, horregatik, planaren bideratzaileak —eta, beraz, taldeak ere— aktiboki eta iraunkorki identifikatu eta konpondu behar ditu arazoak, irtenbide berriak garatuz (Nonaka, 1994). Berrikuntzaren bidez oreka berri horiek bilatzeko ezinbestekoa da parte hartzaileen jakintza eta motibazio aniztasuna baliatzea (Grant, 1996; Teece, 2007).

Fundazioak autonomiaren, malgutasunaren eta aniztasunaren aldeko apustua egin du, funtsezkoak direlakoan kasuen kudeaketa etengabe egokitzeko. Autonomiaren eta parte hartzearen paradigmari erantzuteko, beharrezkotzat jotzen da erabakiak hartzean deszentralizazio eta hurbiltasun handiagoz jokatzea zaintzak ematen diren lekuetan (Sjögren, Lindkvist, Sandman, Zingmark eta Edvardsson, 2017).

Aniztasunaren eta dinamismoaren kudeaketaren erronkei beste fenomeno bat gehitzen zaie: hainbat kasu aldi berean kudeatzearen ondoriozko agregazioa. Laguntza duten pertsonen kopuruak gora egiten duen heinean esponentzialki hazten da antolamenduaren konplexutasuna (Grant, 1996).

Eta antolamendua zenbat eta sakabanatuago egon, orduan eta gehiago areagotzen da fenomenoa, bai eta kulturalki diferenteak diren beste erakunde eta sistema batzuekin —ekosistema bakoitzean daudenekin— koordinatu beharra dagoenean ere (Solansky, 2008). Era berean, agregazioak gora egiten duen heinean oportunismoa ere handitzen da (Noteboom, 2000), eta horrek benetako lankidetza oztopatzen du (Steele Gray et al., 2020).

Aniztasunaren, dinamismoaren eta agregazioaren fenomenoak kudeaketan txertatzea (Mintzberg, 2017) ez dator bat gaur egungo antolatzeko kulturarekin; izan ere, indarrean den antolatzeko kulturaren balio proposamena ebidentzian eta estandarizazioan dago oinarrituta, eta protokolo bihurtzen ditu linealtasun mekanizista baten logika zientifikoak (OME, 2015; Alharbi et al., 2012; Mezzich, 2009). Botere egitura horiek inputari eta antolamendu formalari erreparatzen diete. Alde batera uzten dituzte pertsonen ongizatean funtsezkoak diren alderdiak, hala nola emozioak, lotura afektiboak, norberaren berezitasuna eta kide sentitzea. Ez dute aintzat hartzen zaintzen harreman prozesuan sortzen den ezagutzaren potentzialtasuna ere.

# 5. Erronka estrategikoak / Politikak

## Gogoeta estrategiko berriaren testuingurua

Duela 40 urte inguru, Rezola egoitzak —hasieran aterpetxe izan zenak— osatzen zuen Matia, eta urtean 80 pertsona ingururi laguntzen zitzaien bertan. Jarduera hori bilakatuz joan da, eta gaur egun urtean 30.000 pertsona ingururi laguntzen eta haien ongizatea hobetzen dihardugu, Fundazioak egindako inpaktuaren neurketaren arabera.

Kopuru horrek poliki egin du gora azken 10 urteetan, ahalegin, energia eta ezagutza ugari bideratu baitira zaintza eredua eraldatzera, laguntzen ditugun pertsonen beharretara egokitutako erantzuna emate aldera.

Azpimarratzeko moduko aurrerapausoak eman ditugu ibilbide pertsonalizatuak sortzea xede duen kasu kudeaketa ezartzeko bidean; aurrerapen garrantzitsua lortu da zaintza ereduaren eraldaketan, zerbitzuen integrazioan, lankidetza proiektuetako ikerketa-ekintza arloan eta gobernantza eredua irekitzeko egitasmoan, eta pausoak eman ditugu —nahikoak ez oraindik— pertsonek beren bizitza eta zaintza planean parte hartzeko bidean. Jarraian, hasi dugun gogoeta estrategikoaren esparrua azalduko dugu, nola jarraitu nahi dugun hurrengo urteetan gure misioan aurrera egiten.

## Gogoeta eta ekintza estrategikoaren prozesua

2023an ekin genion gogoeta eta ekintza estrategikoaren prozesuari (2024-2060). Horren helburua 55 urteko eta hortik gorako pertsonen ongizatea sustatzea da, Gipuzkoan zuzenean eta beste lurralde batzuetan zeharka. Prozesuan ikuspegi sistemikoari heldu nahi zaio, pertsonen bizitzarekin ekologikoa den ikuspegiari, eta egitasmo bera duten beste eragile batzuekin lankidetzan.

Biztanleria horren (+55) bizi baldintzen inguruan Matia Institutuaren ekimenez egindako azterketa sakonari esker, hobetzeko arlo eta aukera batzuk zehaztu dira, iraupen luzeko zaintza eraginkorragoak eta egokiak eskaintzeari dagokionez.

Funtsezko zenbait alderdi identifikatu dira; besteak beste, osasun fisikoa eta mentala, ongizate emozionala, zaintzaren eta laguntzaren beharrak, gizarte integrazioa eta zerbitzuen eskuragarritasuna. Gainera, erronka garrantzitsuak nabarmendu dira: zaintza espezializatuetarako aukera falta —batez ere narriadura kognitiboko kasuetan—, bakardadea eta isolamendu soziala, inguruneak biztanleria horren behar espezifikoetara egokituta ez egotea, eta abar.

Fundazioaren etorkizuneko ekintza garatzeko oinarri izango diren funtsezko zenbait kontzeptu edo gako hartu dira kontuan gogoeta estrategikoko prozesua antolatzeko. Horien bidez zaintzak eta horien antolamendua ulertzeko bestelako modu bat bultzatu nahi da, pertsona bakoitzaren berezitasunetara hobeto egokituko diren erantzunak proposatzeko.

Era berean, hizkuntza eta diskurtso komuna sustatu nahi dira, kultura eraldatzeko prozesua egituratzeko eta, diziplinartekotasunetik eta berrikuntzatik abiatuta, erakunde gisa xede dugun ekintza dinamizatzeko.

| KONTZEPTU ESTRATEGIKOAK | DESKRIBAPENA |
|---|---|
| Zahartze esanguratsua | Kontzeptua bizitzaren zentzuarekin eta esanahiarekin lotuta dago. Pertsonen ebaluazio subjektiboa da, eta bizipenen eta bizi esperientziaren bidez lortzen den xede edo asmoarekin lotuta dago. |
| Lagunkoitasuna | Modu aktiboan, partaidetzazkoan eta esanguratsuan zahartzea askotariko faktoreren menpe dago, hala nola komunitate lagunkoien ezaugarritzat hartzen diren ingurune fisikoen eta sozialen menpe. Ildo horretan, funtsezko alderdiak dira, besteak beste, pertsonen gaitasunak eta ahalmenak onartzea, irisgarritasuna, parte hartzeko eta hautatzeko aukerak izatea edo horiek bermatzeko beharrezkoak diren laguntzak ematea. |
| Zerbitzuen hornidura | Pertsonen Arreta eta Bizitza Plan baten inguruan ahalik eta autonomia mailarik handiena sustatzera bideratutako askotariko laguntzak hornitzea, betiere orientatzen gaituen arreta ereduaren irizpide tekniko, etiko eta legezkoekin bat. |
| Kasuaren kudeaketa (bizitza plana bideratzea) | Laguntzen kudeaketa jarraitua eta sistematikoa egiteko proposamena, honako metodologia hauek erabiliz: beharrak osotasunean ebaluatzekoak, plangintza pertsonalizatua egitekoak, eta gizarte, osasun eta komunitate alorreko zerbitzuak koordinatzekoak. Pertsonarengan ardaztutako arretaren printzipioak lirateke abiapuntua, eta pertsonek parte hartze aktiboa izango lukete, beren bizi proiektuen jarraipena ahalbidetzeko. |
| Parte hartzea | Lotura zuzena du «zahartze aktiboaren» teoriarekin. Parte hartzea eskubidetzat hartzen da eta lotuta dago autonomiarekin (norberaren bizitzan parte hartzearekin) eta gizarte inklusioarekin (bizitzan eta komunitatearekin parte hartzearekin). |
| Jasangarritasuna | Gure egungo ekintzen bidez, eskura dauden baliabideak erakundearen etorkizuna arriskuan jarri gabe kudeatzen direla bermatzen du. Hiru ardatzen inguruko jasangarritasunaz ari gara: ekonomia, gizartea eta ingurumena. |
| Kudeaketa integratua | Kudeaketa integratuan kontuan hartzen da erakundea pertsonen sistema konplexua, irekia eta askotarikoa dela. Parte diren alderdiek bat egin behar dute erabakiak hartzeko, eta erabaki horietan guztiak hartu dira kontuan. Hala, alderdion batura alderdi bakoitza bera baino handiagoa izatea lortuko da. |
| Rol profesionalak | Eginkizun profesionalak egoki zehazten badira aukera egongo da, besteak beste, erakundearen baliabideak optimizatzeko, beharrak eta aukerak identifikatzeko, prozesuak hobeto burutzeko, pertsonak lagundu eta gaitzeko, eta lan kargak hobeto aztertzeko. |
| Gaitasun profesionalak | Identifikatutako lanpostu eta eginkizun bakoitzarekin lotuta dauden autonomiari eta erantzukizunari begira beharrezkotzat jotzen ditugun gaitasunak eta motibazioak identifikatu eta sustatu behar dira. |
| Zaintza eskaintzen duten ostatuak | Egoitza eta bizikidetza antolatzeko askotariko formulak sustatzea. Giro atseginean, aukera emango dute bizitza esanguratsua aurrera eramateko, ahalik eta autonomia mailarik handienarekin bizitzeko, eta komunitatean parte hartu eta bertako kide izateko, beharren arabera aurreikusitako laguntza egonkorrekin. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, egoitza zentroetako bizikidetzako unitateak, bizikidetzako unitateetako etxebizitzen eredua eta ingurune komunitarioetako babesdun etxebizitzak. |

## Erakundearen egungo egoera eta joerak

Fundazioaren egungo eta etorkizuneko egoeraren oinarria izango da, seguruenik, erakunde gisa onartzea pertsonak ingurune seguru eta esanguratsuan zahartu daitezkeela, haien autonomia eta ongizatea sustatuz eta eskubideen ikuspuntua kontuan hartuta.

Iraupen luzeko zaintzei dagokienez, kontu jakina da eguneroko oinarrizko jardueretarako —edo norberaren bizitzari zentzua ematen dioten jardueretarako— laguntza behar duten adinekoak gero eta gehiago eta askotarikoagoak direla.



Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

Pertsona bakoitza eta, beraz, haren premiak eta aurreikuspenak askotarikoak eta aldakorrak dira. Horregatik, ezinbestekoa da pertsonak ardatz dituen ikuspegiari heltzea, hau da, pertsona bakoitza kontuan hartuko duen arreta pertsonalizatua bideratzea. Pertsonen premiak eta aurreikuspenak aipatzen ditugunean ez gara ari zaintza jasotzen duten pertsonez bakarrik, talde interesgarrietako partaide guztiez baizik: senitartekoak eta zaintzaile informalak, langile profesionalak eta boluntarioak, eta zaintza lanak finantzatzen eta arautzen dituzten erakunde publiko zein pribatuetako pertsonak. Guztiek ere, pertsonen giza eskubideak, duintasuna, autonomia, parte hartzea, segurtasuna eta ongizatea bermatuko dituzten zaintza zerbitzuak eskatzen dituzte.

Partaideen eskubideak eta duintasuna kontuan hartzen dituen ikuspegia babestea aurrekaririk gabeko erronka izugarria da malgutasunari, koordinazioari eta erakunde integrazioari dagokienez. Kudeaketa tradizionalaren aldean paradigma aldaketa proposatzen du; izan ere, tradizionalki, erabiltzaile mota jakin batzuentzat diseinatutako laneko protokolo eta jarraibide itxien mende egon da zaintzaileen jokabidea —eta, beraz, erakundeen emaitzak—. Protokolo eta jarraibide horiek betez, kalitate estandar nahikoa bermatzen zen. Baina pertsona horietako bakoitza bakarra dela kontuan hartzen bada, norbanakoari erreparatzen bazaio, pikutara bidaltzen da eskubideen planteamendu hori, ez diolako lekurik egiten lortu nahi den ikuspegi humanistari.

Orain arte jasotako nazioarteko ebidentziaren arabera, eta Fundazioak administrazio eskudunen lankidetzarekin aurrera eramandako ikerketa eta ekintza proiektuen emaitzek erakutsi dutenez, etorkizunera begira, taldeen eta horien arduradunen gaitasuna handitzea izango da gakoa autogestioa areagotzeko. Taldeek, betiere, helburua partekatuko dute, eta haien eskumenen mugak ondo zehaztuta egongo dira. Ikaskuntza eta berrikuntza estrategiak partekatuko dituzte, asmo handiko estrategian ezinbestekoak diren kohesioa, ezagutza eta moldagarritasuna sortzeko.

## Erronkak

Eta, etorkizunari begira, zer proposatzen dugu beste 35-40 urte barrurako? Erantzuna argia da: bizi luzetasunaren eta zaintzen paradigma aldatzeko eragile izatea, erreferente diren beste batzuekin —publiko zein pribatuekin— batera. Horretarako, eta gauzak egiteko bestelako modu bat posible dela erakusteko, «Milioi bat» deitu diogun «erronka» planteatu dugu: 2026. urterako, milioi bat pertsonaren ongizatean eragin positiboa izatea.

Plan hori aurrera eramateko finkatu dugun estrategiaren arabera, lehenengo Gipuzkoan ezarriko dugu, lurraldeko eskualde guztietan, eta ondoren, poliki-poliki, ondoko lurraldeetara hedatuko ditugu jada menperatzen ditugun zerbitzuak. Hala, Gipuzkoa izango da berrikuntzako eta proba egiteko nodoa. Gero, zerbitzu berriak probatu, balioztatu eta menderatu ostean, beste testuinguru batzuetara hedatuko ditugu.

Egitasmo hori, honako erronka estrategiko hauen bidez landuko da planetan:

- Asmoa hedatzea
- Zaintzak eta laguntzak integratzea, pertsonak eta komunitatea ardatz direla
- Esku hartzean eta ikerkuntzan oinarritutako berrikuntza

- Erakundea egokitzea

Era berean, 12 urteko zikloak proposatzen dira, eta horietako bakoitza 4 urteko ibilbide orrietan banatzea.




Ziklo horiek honako proiektu hauetan jasoko dira:

- Hedatzeko estrategia (12 urte)
- Eremuko plan zuzentzailea (4 urte)
- Zentroaren, zerbitzuaren edo arloaren urteko plana
- Unitatearen edo jardueraren urteko plana

## Kudeaketako eta gobernantzako egitura berria

Gogoeta estrategikoaren prozesuaren barruan, planteatutako erronkei heltzeko beharrezkoa den kudeaketa egitura zehaztu da. Egitura hori laguntzak behar dituzten pertsonentzako jarduera eremuen inguruan sortzen da, euskarri dituzten eremuen inguruan, eta erakundea komunitatearen testuinguruan kokatzen du, beti pertsonen zerbitzura.

Laguntza behar duten pertsonei modu integratuan lagun egiten dieten zerbitzuen eta lan eremuen askotariko izaera islatzen du egiturak. Lagun egite hori kasuaren kudeaketaren eta ikerketa eta esku hartzea aurreikusten dituen metodologiaren bidez gauzatzen da. Institutua gero eta integratuago dago zaintza eredua berritzeko eta eraldatzeko prozesuetan, eta aipatutako metodologia integrazio horren emaitza da.




2024ko ekainean eguneratutako bertsioa

## Arreta berrikuntzan jarrita:

Berrikuntzaren kultura finkatu nahi da, berrikuntzako prozesu osoaren euskarri eta laguntzaile izango den **egitura** iraunkorra sortuz. Egitura horrek prozesu osoa hartuko du barne: beharrak aztertzea, helburuak identifikatzea, proiektuak diseinatzea, hedatzea, ebaluatzea, ikastea eta, azkenik, material pedagogikoak sortzea ezagutza transferitzeko. Hau da, erakunde mailan **hobekuntzako eta ikaskuntzako zirkulua** ixtea da asmoa, beharrak identifikatzetik hasi eta horiek politika berrietara eta material pedagogikoetara eramateraino. Funtsezkoa da antolamenduaren aldetik malgutasun nahikoa izatea ingurunearen baldintza aldakorretara egokitu ahal izateko.

Berrikuntza prozesuak eremuekin lotuta daudenez, horietako bakoitzaren asmoari erantzun behar diote, eta jarraian azaltzen den eskeman adierazten diren hiru mailetako bakoitzaren barruan proiektuak eta helburuak zehaztu behar dituzte.


Propósito
Establecer el propósito de cada ámbito
Nivel 1 (N1): Innovación incremental
N1
1. Mejora de los servicios existentes y ámbito geográfico.
2. Optimización de las políticas de atención y las organizativas.
3. Implementaciónde nuevossistemas de información para mejorar la eficacia del propósito organizativo.
Nivel 2 (N2): Innovación de productos y servicios
N2
1. Desarrollo de programas especializados.
2. Ampliación de la mirada preventiva
3. Mirada integral
Nivel 3 (N3): Innovación disruptiva
N3
1. Exploración de modelos alternativos de atención y cuidado.
2. Colaboración con organizaciones y otros agentes startups tecnológicas.
3. Implementación de enfoques vanguardistas.

# 6. Arriskuak eta aukerak

Mehatxu eta aukerarik esanguratsuenen artean, hauek nabarmentzen ditugu:

Hizpide dugun testuinguruan, arriskuak eta aukerak asko dira, eta konplexuak. Batetik, taldeen gaitasunen garapenarekin lotutako arriskuak daude, erakundean eskema eta egitura berriak onartzearekin lotutako arriskuak. Ildo horretako ekimenen bidez taldeen autonomia handitzeko malgutasuna ahalbidetzen da, baina, aldi berean, planteatutako helburuak lortzeko beharrezkoak dira ordena eta zorroztasuna.

Beste mehatxu bat lan kargaren eta giza zein ekonomia baliabideen arteko desoreka da, planteatutako eskaerari erantzun behar zaiola kontuan hartuta. Horrek tentsio handia eta nekea sortzen ditu.

Era berean, lortu nahi den kultura aldaketak talka egiten du lanaren antolamenduaren inguruko kanpoko ikuskerarekin, ez dator bat kutsu tayloristako proposamen tekniko-zientifikoari eusten dioten sindikatuekin eta administrazioekin.

Horrez gain, gizarte eta osasun zerbitzuen artean koordinazio eta integrazio falta dago, eta gizartean agerikoa da adinkeria kulturala. Ondorioz, adinekoen oinarrizko eskubideak sarritan baztertu edo murriztu egiten dira.

Bestalde, txipa aldatzearen premiari buruz gizartean goraka doan kontzientzia sozialaren harira, aukera nabarmena dugu aurrean.

Gero eta gehiago hitz egiten da zaintzen garrantziaz, erronka demografikoaz, zahartze aktiboaz, zaintza eredu berriak garatzeaz, lehen mailako arretaren eta prebentzioaren garrantziaz, errehabilitazioaz eta komunitatearen laguntzaz. Ildo beretik, garrantzitsutzat jotzen dira gizartearen partaidetza eta adinekoen boluntariotza, bai eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera ere.

Seguruenik, planteatutako erronkak nabarmenak izan arren, une egokia da proposatutako paradigma aldaketari gogotsu heltzeko.



Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

# 7. ISO arauak, jasangarritasuna eta GJHak

ISO arauak:

- Erreferentzia globalak dira.
- Nazioarteko lankidetzaren emaitza dira.
- Berrikuntzarako oinarri sendoa dira.
- Tresna lagungarriak dira gobernuei, industriari eta kontsumitzaileei beren helburuak lortzen laguntzeko, garapen jasangarria eta GJHak barne.

Honako hau da garapen jasangarria: bizi kalitate handia, osasuna eta oparotasuna bat etortzea justizia sozialarekin eta Lurrak bizitzari bere dibertsitate osoan eusteko duen gaitasunarekin. Helburu sozialak, ekonomikoak eta ingurumenaren alorrekoak elkarren mendekoak dira eta elkar indartzen dute. Gizarte osoaren itxaropenik zabalenak adierazteko bidetzat har daiteke garapen jasangarria.

ISO arauek ia gai guztiak jorratzen dituzte: hasi konponbide teknikoetatik eta prozesuak eta prozedurak kudeatzeko sistemetaraino.

Ez dago GJHei buruzko berariazko ISO araurik, baina badira GJHekin bat datozen arauak. Hala, GJH bakoitzari ekarpen bat egiten dioten arauak identifikatu ditu ISOk (ISO SDG bilaketa tresnaren arabera).

Esan dezakegu Matiak laneko kalitatearen, segurtasunaren eta osasunaren kudeaketarekin duen konpromisoaren barruan (ISO 9001 eta ISO 45001 ziurtagirien bidez) GJH hauek lortzen laguntzen duela:

| ISO araua | Arauak honetan laguntzen du | GJHak lortzen laguntzen du (www.iso.org) |
|---|---|---|
| ISO 9001: Kalitatearen kudeaketa.<br><br>**Zentro guztiak, baita MatiaZaleak eta Gerozerlan ere, Zaintzatari eta Matia Enea izan ezik. Goxaran, Ordiziako eguneko zentroa eta Beasaingo etxez etxeko arreta barnean hartuta.* | Eraginkortasun handiagoz lan egiten eta zerbitzuaren akatsak murrizten. |  |
| ISO 45001: Laneko segurtasuna eta osasuna.<br><br>**Goxara, Zaintzatari, Petra Lekuona eta Matia Enea izan ezik.* | Lantokiko istripuak murrizten. |  |


OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE
1 FIN DE LA POBREZA
2 HAMBRE CERO
3 SALUD Y BIENESTAR
4 EDUCACIÓN DE CALIDAD
5 IGUALDAD DE GÉNERO
6 AGUA LIMPIA Y SANEAMIENTO
7 ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE
8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO
9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA
10 REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES
11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES
12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES
13 ACCIÓN POR EL CLIMA
14 VIDA SUBMARINA
15 VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES
16 PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS
17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS
OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE

## 8. Matiaren materialtasun analisia

Materialtasun analisia egiteko, *Global Reporting Initiative* (GRI) estandarretan jasotako «Txostenak egiteko printzipioak» jarraitu ditu Matiak, GRI 101 estandarraren arabera (2016ko oinarriak). Hala ere, jakin badakigu estandarrak berrikusi eta eguneratu egin zirela 2021ean (2023ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean).

Horrek berekin ekarri du jasangarritasun memoria egiteko printzipio hauei jarraitzea: Interes taldeak sartzea, Jasangarritasun testuingurua, Materialtasuna eta Exhaustibotasuna.

**IDENTIFICACIÓN de temas relevantes**

Mediante inventariado de aspectos relevantes identificados por los grupos de interés, análisis del entorno, monitoreo de medios de comunicación, revisión de legislación, normativa, guías y estándares nacionales e internacionales, participación en proyectos de colaboración y/o investigación con los grupos de interés.

**PRIORIZACIÓN de aspectos materiales**

Mediante la evaluación de los aspectos mejor ponderados por los grupos de interés, relacionados con el nivel de impacto en la estrategia de la organización y también en su reputación (Matriz de materialización).

**VALIDACIÓN de resultados**

Mediante la validación de los resultados de la priorización por el CEMI para asegurar la legitimidad y equilibrio de los temas relevantes y los aspectos materiales. en base a su alcance, cobertura y periodo de referencia.

Horrela, prozesu horretan etapa hauek aurreikusten dira:

### Interes talderik garrantzitsuenak

Jarraian, erakundearen interes taldeak aipatuko ditugu. Talde horiek aurretik egindako berrikuspenetatik eguneratu egin dira, eta gogoeta estrategiko honetan sakonki berrikusi beharko dira. Aldi honetan zehar helduko zaio berrikuspenari.

| **Interes taldeak**<br><br>*Erakundearen jarduerak zuzenean edo zeharka eragiten dien barneko eta kanpoko pertsona talde guztiak, beren premia eta itxaropenak dituztenak eta, beraz, erakundean eragina dutenak* |
|---|
| Erabiltzaileak: erakundeak ematen duen edozein zerbitzuren erabiltzaile izan den edonor. |
| Familiak: erakundeak ematen duen edozein zerbitzuren erabiltzaile baten edozein senitarteko. |
| Langileak: Matiarentzat lan egiten duen edonor, pertsonengan ardaztutako zerbitzuak emateko funtsezko zutabea. |
| Hornitzaileak: gure jarduera garatzeko behar ditugun «produktu eta/edo zerbitzuez» hornitzen gaituzten pertsonak eta/edo erakundeak. |

| |
|---|
| Administrazio publikoak: zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko gurekin harreman estua duten erakunde publikoak, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. |
| Gizartea: Matiak zerbitzuak ematen dituen ingurunean parte hartzen duten pertsona edo erakunde guztiak (elkarteak, unibertsitateak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta abar). |
| Sektore soziosanitarioko profesionalak: Matiak bere zerbitzuak ematen dituen gizarte eta osasun sektore bereko kide diren pertsona edo erakunde guztiak (zentro soziosanitarioak, erakundeak, ikerketa zentroak eta abar). |
| Elkarteak eta boluntarioak: behar bezala antolatutako erakunde publiko edo pribatuak eta/edo pertsona fisikoak, interes orokorreko beharrak asebetetzera bideratutako jarduerak askatasunez, altruismoz eta eskuzabaltasunez egiten dituztenak; besteei edo, oro har, gizarteari laguntzea da haien helburua. |
| Patronatua: Fundazioaren gobernu eta ordezkaritza organoa da, fundatzailearen borondatea betetzen dela zaintzen du, Fundazioaren xedeak betetzen ditu eta erakundearen ondasunak eta eskubideak administratzen ditu. |
| LSO Batzordea: Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea. |
| Sindikatuak: langileak ordezkatzen dituen sare osoa. |
| Osalan: lan ikuskaritza. |

## Gai materialak identifikatzea

Interes talde bakoitzarentzat hainbat tresna zehaztu ditugu, entzuteko eta hitz egiteko etengabeko kanal irekia izatea ahalbidetzen digutenak. Asmoa hauxe da: tresna horiek etengabe eguneratu eta berrikustea, eta, horrela, interes talde bakoitzaren beharrak eta itxaropenak eraginkortasun handiagoz identifikatzea, etengabeko ikaskuntza ahalbidetuz.

## Entzuteko mekanismoak

| Interes taldea | Entzuteko mekanismoak eta bideak |
|---|---|
| Pertsonak eta senitartekoak | Laguntza prozesuen kalitatea eta etengabeko hobekuntza zaintzeko bideak.<br>Pertsonek erakundean eta bertako arreta planetan duten parte hartze formala eta informala indartzea.<br>Pertsonarengan ardaztutako arretan oinarritzea. |
| Profesionalak | Negoziazioko eta pertsonen eta segurtasun eta osasun prozesuetako eskaerak txertatzea.<br>Guztiok hausnartzeko eta parte hartzeko eremuak sustatzea. |
| Sindikatuak | Lan bateratua egiteko guneak.<br>Topaketarako guneak.<br>Negoziazio prozesuak. |

| | |
|---|---|
| LSO Batzordea | Maiztasunez eta arin egiten diren laneko segurtasun eta osasun batzordearen bilerak. |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Lege baldintzak betetzea.<br>Institutuak eta laguntza alorrak lan proaktiboa egitea ezagutzaren eta berrikuntzaren kudeaketan. |
| Euskadiko Osasun Saila | Eskakizunak identifikatu eta betetzea, etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa kontratu programaren autoebaluazioan.<br>Institutuak eta laguntza alorrak lan proaktiboa egitea ezagutzaren kudeaketan. |
| Gizartea | Ekintza plan komunen, ikerkuntzaren, ezagutza zabaltzearen eta abarren bidez gizartearengana iristeko ekintza planak. |
| Hornitzaileak eta kontratak | Enpresa jarduera koordinatzea.<br>Proiektuak eta/edo zerbitzu berriak garatzeko aliantzak ezartzea.<br>Jasangarritasuna: kostuei eustea, zerbitzu hobea eskainiz. |
| Sektore soziosanitarioko profesionalak | Prestakuntza prozesuak.<br>Laguntza prozesuak.<br>Ezagutza WEB bidez zabaltzea. |
| Boluntarioen elkarteak eta erakundeak | Lankidetza hitzarmenak.<br>Boluntarioak unitateetako bizimoduan integratzea, pertsonentzat garrantzitsua dena oinarri hartuta. |
| Patronatua | José Matia Calvoren legatuan, Fundazioaren Estatutuetan eta Barne araudian ezarritako baldintzak. |
| OSALAN, lan ikuskaritza | Lege baldintzak identifikatu eta betetzea. |

Entzuteko bide horiez gain, honako hauek hartu dira kontuan fase honetan:

- Gizarte erantzukizun korporatiboko joerak eta beste erakunde batzuen jasangarritasun memoriak kontsultatzea.
- Nazio Batuen Mundu Ituna eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak).
- Jardueran izango duen eraginaren arau azterketa.
- Itunak administrazio publikoekin.

- Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024 aldiko Adinekoekiko Euskal Estrategia.
- Erakundeak identifikatutako protokoloak, gidak, eskuliburuak, irizpide etikoak, balioak, arriskuak eta aukerak.
- Ikerketa zientifikoko azterlanak.
- Komunikabideetan zabaldutako argitalpenak, albisteak eta abar, sektorearen joerei, interes taldeen behar eta itxaropenei eta abarri lotutakoak.

Horrenbestez, honako hauek dira identifikatutako behar eta aurreikuspen garrantzitsuenak, interes taldeen arabera sailkatuta:

## Beharrak

| Interes taldea | Beharrak |
|---|---|
| Pertsonak eta senitartekoak | Pertsonei eragiten dienaren gaineko informazioa eta erabakitzeko ahalmena ematea.<br>Arreta pertsonalizatua eta hurbila.<br>Zaintzen jarraitutasunean laguntzea.<br>Eskubideak bermatzea. |
| Profesionalak | Egonkortasuna eta lan baldintza egokiak.<br>Aintzatespena eta autonomia.<br>Laneko ongizatea, lan ingurune seguruak eta osasungarriak bermatuta. |
| Sindikatuak | Erakundearen hainbat arlori buruzko informazio gardena eskura izatea (ekonomikoa, lanekoa, segurtasunaren eta osasunaren ingurukoa eta abar). |
| LSO Batzordea | Laneko segurtasun eta osasunaren arloko informazio eguneratua eta eskuragarria izatea.<br>Laneko segurtasun eta osasun baldintzei buruzko ikuspegi orokorra. |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Itunpeko zerbitzuak estaltzea eta lege baldintzak betetzea.<br>Jasangarritasuna.<br>Laguntzen ditugun pertsonen beharrei eta eskaerei erantzutea. |
| Euskadiko Osasun Saila | Itunpeko zerbitzuak estaltzea, lege baldintzak betetzea eta adostutako kalitatea bermatzea.<br>Jasangarritasuna.<br>Laguntzen ditugun pertsonen beharrei eta eskaerei erantzutea. |

| | |
|---|---|
| Gizartea | Informazioa eta aholkularitza.<br>Zaintzaren beharrak betetzea. |
| Hornitzaileak eta kontratak | Etengabeko komunikazioa. Informazio egokia.<br>Ordainketen erregulartasuna.<br>Lan egingo duten lekuan dauden arriskuak ezagutzea.<br>Erakundeko partaide sentitzea. |
| Sektore soziosanitarioko profesionalak | Zaintza eredua eraldatzeko laguntza eta trebakuntza. |
| Boluntarioen elkarteak eta erakundeak | Pertsonen eta/edo erakundearen premiak identifikatzea, beste pertsona batzuen laguntza eta/edo boluntariotza ekintzak jaso ditzaketenak.<br>Boluntariotza lana egiteko informazioa eta laguntza jasotzea.<br>Aitortza. |
| Patronatua | Erakundearen hainbat arlori buruzko informazio gardena eskura izatea (ekonomikoa, lanekoa, segurtasunaren eta osasunaren ingurukoa eta abar).<br>Fundazioaren helburuak betetzea eta ondarea arduraz administratzea. |
| OSALAN, lan ikuskaritza | Lege baldintzak betetzea.<br>Informazioa.<br>Kanpainen jarraipena.<br>Ikerketetarako lankidetza. |

## Aurreikuspenak

| **Interes taldea** | **Aurreikuspenak** |
|---|---|
| Pertsonak eta senitartekoak | Pertsonaren errealitatea kontuan hartuko duten laguntza eta zaintza egokien prozesua bermatzea. |
| Profesionalak | Erabakia hartzea eta ekiteko askatasuna.<br>Pertsonarengan ardaztutako arretaren ereduan aurrera egitea ahalbidetuko duten tresnak eta egiturak. |

| | |
|---|---|
| Sindikatuak | Lan baldintzak hobetzea hitzarmenean eta laneko ingurunean (segurtasun eta osasun baldintzak, lan ingurune seguruak eta osasungarriak bermatuta).<br>Antolamendu eta kudeaketa erabakietan eragitea. |
| LSO Batzordea | Lankidetzan jardutea.<br>Prebentzio jarduerak identifikatzen eta garatzen laguntzea.<br>Laneko segurtasunaren eta osasunaren inguruko erabakietan parte hartzea.<br>Erakundeak eraginkortasunez eta berehala erantzutea langileek egindako eskaerei eta/edo erreklamazioei. |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Lankidetzan jardutea.<br>Proiektu berritzaileak identifikatzen eta/edo garatzen laguntzea.<br>Zaintza eredua eraldatzen laguntzea. |
| Euskadiko Osasun Saila | Lankidetzan jardutea.<br>Proiektu berritzaileak identifikatzen eta/edo garatzen laguntzea.<br>Lankidetza eta moldagarritasuna, sistemen beharrei erantzun egokia emateko. |
| Gizartea | Zahartzearen eta desgaitasunaren inguruko ezagutzaren garapena eta politika hobeak bultzatzea.<br>Kalitatezko zaintza eta laguntza. |
| Hornitzaileak eta kontratak | Zerbitzua eta/edo tarifak zabaltzea.<br>Harreman egonkorrari eustea.<br>Istripuei aurrea hartzeko informazio zehatza eta garrantzitsua, eta beharrezkoak diren NBEak ematea, horrelakorik ez badute.<br>Lankidetzan jardutea proiektuetan. |
| Sektore soziosanitarioko profesionalak | Kalitate handiko ezagutza.<br>Erakundeetan emaitzak hobetzea. |
| Boluntarioen elkarteak eta erakundeak | Sarean lan egitea, lankidetzan.<br>Komunikazio arin eta irekia. |
| Patronatua | Sarean lan egitea, lankidetzan.<br>Komunikazio arin eta irekia.<br>Hurbiltasuna eta presentzia handiagoa erakundean. |

| | |
|---|---|
| OSALAN, lan ikuskaritza | Etengabeko komunikazioa.<br>Lankidetzan jardutea beharrezkoa den guztietan.<br>Irisgarritasuna. |

- **Alderdi materialak lehenestea**

Interes taldeen behar eta aurreikuspen guztiak eremu bakoitzeko planetan jasotzen dira, bai eta erakundearen egitura osatzen duten zentro edo zerbitzuetan ere.

- **Emaitzak BALIOZKOTZEA**

Baliozkotze prozesuak amaiera ematen dio edukiak identifikatzeko prozesuari, eta CEMIren eta zuzendari nahiz arduradun taldearen parte hartzearen emaitza da. Etapa horretan, alderdi materialak baliozkotuko dira, haien irismenaren, estalduraren eta erreferentzia aldiaren arabera. Horrela, exhaustibotasunaren printzipioa aplikatuta, memoria honetan eman beharreko alderdiak zehazten dira, urteko inpaktu txostena egiteko informazio gisa erabiliko direnak. Txosten hori Matiaren Patronatuak baliozkotzen du, erakundeak jasangarritasuna eta asmoa betetzeko eginiko ekarpenen erakusgarri.



Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

# 9. Identifikatutako premiei emandako erantzuna

Matiaren konpromisoa zaintza behar duten pertsonekin: eraikuntza kolektibotik kultura eraldaketarantz.

Agerian gelditu denez, Matiak erronka garrantzitsuak ditu laguntza behar duten pertsonen ongizatea hobetzeko bidean, etengabe aldatzen ari den gizarte trebatuago eta zorrotzago baten testuinguruan.

Erantzun egokia emateko, Fundazioak eraldaketa prozesu etengabea —pertsonala nahiz kolektiboa— jorratu behar duelakoan gaude.

Ibilbide horren abiapuntua ezagutzen dugu; ez, ordea, helmuga, prozesua bera baita ziurtasun bakarra.

Zahartzen ari diren pertsonen lehentasunei beha egon behar dugu beti, partekatutako balioetan eta ezagutzaren sorreran oinarrituta eraikitzen jarraitzeko.

Eraikitzeko modu parte hartzailea ahalik eta irekiena izan behar dela deritzogu. Gero eta pertsona gehiago biltzea da gure asmoa.

Horregatik, prozesuaren emaitza ez ezik, hura egiteko modua bera ere nabarmendu behar da, erakundearen maila eta jarduera guztietan parte hartu duten pertsonen kopuru handia azpimarratuta. Hala, dimentsio anitzeko errealitate konplexu bateko pertzepzioak eta sentsibilitateak bildu eta proiektu bateratua, Matia, eraikitzeko aukera izango dugu.



# 10. Negozio eredua. Erakunde egitura




- ## Patronatua

Matia irabazi asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorrekotzat deklaratua, eta 130 urte baino gehiagoko esperientzia du, Gipuzkoan zerbitzu soziosanitarioak ematen. Patronatua hainbat lanbide eremutako 9 pertsona nabarmenek osatzen dute, eta bakoitzak bere kabuz eta borondatez hartzen du parte gobernantzan.

Patronatua Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak arautzen du.

2022an kideak berrikusi ziren, eta hauxe da gaur egungo osaera:

- ## Osaera

| | |
|---|---|
| **Lehendakaria** | María Carmen Garmendia Lasa |
| **Lehendakariordea** | María Luisa Guibert Ucin |
| **Idazkaria** | José Luis Larumbe Martín |
| **Idazkariordea** | Elisa Gascue Echebeste |
| **Kideak** | • Rosario Segura Lasa |

| | |
|---|---|
| | • Jesús M. Ferro Múgica<br>• Ivan Marten Uliarte<br>• Andrés Arizkorreta García<br>• Juan Aldaz Arregui |

- **Funtzionamendua**

Patronatuaren bilera nagusia (urtean bitan eta aparteko deialdi bidez). Estatutu propioak ditu.

Barne Araudiak honako hauek xedatzen ditu:

- Patronatuaren definizioa
- Patronatuko kideen karguaren definizioa.
- Patronatuko kideen izendapena eta Patronatua berritzea.
- Patronatuko karguak.
- Patronatuko kideen beste betebehar batzuk.
- Batzordeak:
    - Izendapen Batzordea.
    - Auditoria eta Betetze Batzordea.
- Zuzendari nagusiaren izendapena.

Informazio guztia gure webgunean dago, gardentasuna bermatze aldera.



Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

## 11. Jarduera eta jarduketa aipagarriak



Jarraian, gure zentro eta zerbitzuen 2024ko jarduera azalduko dugu.

| | **Artatutako pertsonen kopurua** |
|---|---|
| **OSASUN ESPARRUA** | |
| Ospitalea | 1.667 |
| Kontsultak | 2.550 |
| Errehabilitazio anbulatorioa | 7.961 |
| Logopedia | 917 |
| Arreta psikosoziala (EAPS) | 1.041 |
| **OSASUN ESPARRUA, GUZTIRA** | 14.136 |
| | |
| **GIZARTE ESPARRUA** | |
| Adinekoentzako egoitza zentroak | 992 |
| Tutoretzapeko apartamentuak | 10 |
| Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako egoitza zentroa + unitateak | 123 |
| Buruko arazoak dituzten pertsonentzako egoitza unitatea (BNLEU) | 19 |
| UCAS | 18 |
| Unitate soziosanitarioa | 85 |
| **GIZARTE ESPARRUA, GUZTIRA** | **1.247** |
| | |
| **KOMUNITATE ESPARRUA** | |
| Matia Orienta | 1.648 |
| Etxez etxeko arreta | 880 |
| PECEF prestakuntza | 993 |
| SENDIAN programa | 643 |
| Eguneko zentroak | 425 |
| **KOMUNITATE ESPARRUA, GUZTIRA** | **4.589** |
| | |
| **2024 GUZTIRA** | **19.972** |

- **2024ko jarduketa aipagarriak**

  - **Zumarragako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) prestazioa abiatzea**

    Laguntza behar duen pertsonari bere bizilekuan jarraitzeko aukera ematea sustatzen du etxez etxeko laguntza zerbitzuak. Laguntza hori bizilekuan bertan moldatu ahal izatera, bizi proiektuarekin jarraitzera eta komunitate ingurunean integratzera bideratuta dago.

    Ikuspegi horrekin, 2024. urtean Matiak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prestazioa zabaldu zuen, baita Zumarragara ere. Horren bidez, adinekoen beharrei eta lehentasunei bizilekuan bertan erantzuten zaie, bizi proiektuarekin bertan jarraitu ahal izateko.

- **Matia Eskola prestakuntzarako plataforma plazaratzea**

  Joan den urriaren 24an plazaratu zen Matia Eskola, epe luzerako zaintza ereduaren aldaketarekin Matiak duen konpromisoaren ondorioz. Onlineko prestakuntzarako atari berria irekita dago herritar guztientzat eta zaintzen eremuko profesionalentzat.

  Zaintzen eremuan diharduten eragileen artean trebakuntza, etengabeko prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea da Matia Eskolaren asmoa. Hala, laguntza jasotzen duten pertsonei eta haien familiei, sektoreko profesionalei, boluntarioei, ikasleei eta, oro har, herritarrei bideratuta dago. Atarian erakusten diren eduki guztiak funtsezko gaien ingurukoak dira: eskubideen ikuspuntua, pertsonarengan ardaztutako arreta eta horren metodologiak, dementzia duten pertsonei laguntzea, bizitzaren amaiera, ongizatea eta segurtasuna, komunitateko kide izatea eta abar. Horien xedea argia da: pertsona guztiek tratu duina eta errespetuzkoa jaso dezatela eta beren bizitzaren gainean ahalik eta kontrolik handiena izan dezatela.

- **#EtxeanBezala proiektuaren amaierako jardunaldia**

  Joan den azaroaren 28an egin zen Kursaal biltzar jauregian «Etxean bezala» proiektuaren itxiera jardunaldia.

  «Eraldaketa hasi da: komunitatean bizitza ona izateko ibilbidea, bizitegi inguruneetan bizi diren pertsonentzat» izenburupean, egoitza zentroak eraldatu eta pertsonengan ardaztutako etxe giroko inguruneetarantz egiteko bidean lortutakoak eta ikasitakoak nabarmendu ziren ekitaldian. Proiektuaren ikuspegian duintasunak, eskubideek eta komunitatean integratzeak duten garrantzia azpimarratu zuten.

# 12. Sozietatea – Informazio ekonomikoa

Azpimarratu beharra dago 2024ko datuak auditoretzaren eta sozietateen gaineko zergaren osteko doikuntzen aurretik eman direla, eta, beraz, alda daitezkeela. Arrazoi bera tarteko, litekeena da 2023ko datuak bat ez etortzea urte horretako txostenaren auditoretzarekin.

- **Adierazleen panela**

KUDEAKETA TXOSTENA 2024-12-31N

| INDICADORES | | | | PRESUPUESTO | ACUMULADO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | ANUAL | Presupuesto | Real | Real - Ppto |
| Actividad | Area Social | Residencial | Ocupación de Residencias | 98,40% | 98,40% | 97,92% | -0,48% |
| | Area Sanitaria | Hospital | Ocupación Hospital | 81,85% | 81,85% | 82,70% | 0,84% |
| | | | Número de Altas del Hospital | 1.513 | 1.513 | 1.654 | 141 |
| | | | Estancia Media en Hospital | 22,9 | 22,9 | 21,1 | -1,81 |
| | | Rehabilitación | Número de Tratamientos Realizados | 141.435 | 141.435 | 129.111 | -12.324 |
| | | | Número de Pacientes | 7.149 | 7.149 | 7.734 | 585 |
| | | | Número de Tratamientos por Paciente | 19,78 | 19,78 | 17 | -3 |
| | | LO | Número de Tratamientos Logopedia | 16.492 | 16.492 | 17.084 | 592 |
| | | CE | Número de Consultas Externas | 6.083 | 6.083 | 6.206 | 123 |
| | Area Domiciliaria | CD | Ocupación de centros de día | 90,30% | 90,30% | 92,76% | 2,46% |
| | | SAD | Número de horas | 188.678 | 188.678 | 172.327 | -16.351 |
| | | Asist Pers | Número de horas | 24.931 | 24.931 | 26.366 | 1.435 |
| | Area Investigación | Instituto | Número de investigadores | 29 | 29 | 30 | 1 |
| | | | Tasa Horaria | 37 | 37 | 37 | 0 |
| | | | Proyectos en marcha | 36 | 36 | 30 | -6 |
| | Valoraciones | | Nº valoraciones discapacidad | 7.000 | 7.000,00 | 4.513 | -2.487 |
| | | | Nº valoraciones dependencia | 14.772 | 14.772 | 10.354 | -4.418 |

| INDICADORES | | | | PRESUPUESTO ANUAL | ACUMULADO Presupuesto | Real | Real - Ppto |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |
| Resultados actividad | Matia | | Ingresos de Explotación | 77.163.989 | 77.163.989 | 77.362.367 | 198.378 |
| | | | Resultados actividad | 1.473.361 | 1.473.361 | 1.649.643 | 176.282 |
| | | | % Resultado sobre ingresos | 1,91% | 1,91% | 2,13% | 0 |
| | | | EBITDA | 4.440.093 | 4.440.093 | 5.136.309,38 | 696.217 |
| | | | % EBITDA sobre ingresos | 5,75% | 5,75% | 6,64% | 0 |
| | | | Servicio de la deuda | 3.177.505 | 3.177.505 | 3.467.530 | 290.025 |
| | | | Inversiones ordinarias | 1.150.225 | 1.150.225 | 1.242.931 | 92.706 |
| | | | Disponibilidad tesorería | 112.363 | 112.363 | 425.848 | 313.486 |
| | | | Independencia Financiera | 56,45% | 56,45% | 58,24% | 1,79% |
| | | | Fondo de Maniobra | -2.505.086 | | -5.489.167 | |

- **JOSÉ MATIA CALVO FUNDAZIOA ETA MENDEKO SOZIETATEAK**

GALDU-IRABAZIEN KONTU AUDITATUA, 2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKIONA (eurotan)

| | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A) OPERACIONES CONTINUADAS** | | | | | | | | |
| **1. Importe neto de la cifra de negocios.** | **70.428.680,58** | **63.920.113,02** | **56.047.910,75** | **50.558.133,50** | **45.286.151,85** | **45.576.684,55** | **45.051.584,59** | **47.063.197,12** |
| b) Prestaciones de servicios. | 70.428.680,58 | 63.920.113,02 | 56.047.910,75 | 50.558.133,50 | 45.286.151,85 | 45.576.684,55 | 45.051.584,59 | 47.063.197,12 |
| **3. Trabajos realizados por el grupo para su activo.** | 190.988,92 | | | | | | | |
| **4. Aprovisionamientos.** | **-7.707.335,57** | **-8.391.624,67** | **-8.007.579,12** | **-7.446.757,10** | **-7.634.190,97** | **-7.244.588,91** | **-7.412.802,13** | **-7.683.071,75** |
| a) Consumo de mercaderías. | -1.502.730,26 | -1.382.945,05 | -1.259.480,69 | -917.445,97 | -865.375,25 | -866.833,74 | -864.921,69 | -845.034,99 |
| b) Consumo de materias primas y otras materias consumibles. | -3.739.615,47 | -3.417.440,48 | -2.920.121,50 | -2.536.840,18 | -2.530.755,36 | -2.005.954,65 | -2.135.626,87 | -2.211.662,97 |
| c) Trabajos realizados por otras empresas. | -2.464.989,84 | -3.591.239,14 | -3.827.976,93 | -3.992.470,95 | -4.238.060,36 | -4.371.800,52 | -4.412.253,57 | -4.626.373,79 |
| **5. Otros ingresos de explotación.** | **4.042.601,87** | **4.204.125,70** | **2.826.399,22** | **1.339.656,40** | **1.406.258,97** | **1.333.587,19** | **1.303.984,36** | **1.176.244,87** |
| a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente. | 3.145.415,77 | 2.243.784,88 | 1.885.221,82 | 1.027.328,08 | 1.160.221,97 | 1.154.845,08 | 1.190.905,76 | 1.110.444,27 |
| b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio. | 897.186,10 | 1.960.340,82 | 941.177,40 | 312.328,32 | 246.037,00 | 178.742,11 | 113.078,60 | 65.800,60 |
| **6. Gastos de personal.** | **-56.819.865,62** | **-51.855.182,00** | **-42.799.967,80** | **-37.071.287,97** | **-33.008.699,65** | **-32.576.974,97** | **-31.145.039,42** | **-32.379.096,79** |
| a) Sueldos, salarios y asimilados. | -41.960.279,49 | -38.445.800,81 | -31.785.915,52 | -27.371.601,07 | -24.100.273,72 | -24.244.977,14 | -23.159.148,18 | -24.209.627,50 |
| b) Cargas sociales. | -14.859.586,13 | -13.409.381,19 | -11.014.052,28 | -9.699.686,90 | -8.908.425,93 | -8.331.997,83 | -7.985.891,24 | -8.169.469,29 |

| | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A) OPERACIONES CONTINUADAS** | | | | | | | | |
| **7. Otros gastos de explotación.** | **-5.479.783,92** | **-5.128.321,54** | **-4.626.557,59** | **-3.590.858,68** | **-3.413.192,66** | **-3.413.239,70** | **-3.390.742,90** | **-3.596.936,84** |
| a) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales. | 0 | 0 | 0 | 1.175,58 | -39.062,15 | 0 | | -4.922,20 |
| b) Otros gastos de gestión corriente. | -5.479.783,92 | -5.128.321,54 | -4.626.557,59 | -3.592.034,26 | -3.374.130,51 | -3.413.239,70 | -3.390.742,90 | -3.592.014,64 |
| **8. Amortización del inmovilizado.** | **-3.051.868,37** | **-2.393.730,44** | **-2.186.295,90** | **-2.119.887,58** | **-1.829.577,66** | **-1.851.578,84** | **-2.008.517,79** | **-2.051.855,87** |
| **9. Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras.** | **789.975,98** | **492.781,56** | **504.427,85** | **485.510,59** | **212.075,16** | **213.621,02** | **214.005,17** | **212.075,00** |
| **10. Excesos de provisiones** | | | | | | | | |
| **11. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado.** | **-8.634,38** | **-334,8** | **-334,8** | **787,56** | **-334,8** | **-2.303,97** | **-13.104,58** | **-590,04** |
| a) Deterioros y pérdidas. | | -334,8 | -334,8 | 787,56 | -334,8 | -2.303,97 | | |
| b) Resultados por enajenaciones y otras. | -8.634,38 | | | | | | -13.104,58 | -590,04 |
| **13. Diferencia negativa en combinaciones de negocios** | **0** | | | **47.911,24** | | | | |
| **14. Otros resultados** | **6.456,82** | **349.293,74** | **-3.368,89** | **12.361,34** | **-22.487,74** | **338.188,89** | **64.574,11** | **-14.717,16** |
| **A.1) RESULTADO DE EXPLOTACIÓN (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13+14)** | **2.391.216,31** | **1.197.120,57** | **1.754.633,72** | **2.215.569,30** | **996.002,50** | **2.373.395,26** | **2.663.941,41** | **2.725.248,54** |
| **15. Ingresos financieros.** | **8.358,32** | **6.791,49** | **5.270,52** | **7.429,72** | **11.672,47** | **10.682,10** | **12.576,79** | **12.485,86** |
| a) De participaciones en instrumentos de patrimonio. | | | | | | | 0 | 0 |
| Imputaciones de subvenciones, donaciones y legados de carácter financiero | | | | | | | 0 | 0 |
| b) De valores negociables y otros instrumentos financieros. | 8.358,32 | 6.791,49 | 5.270,52 | 7.429,72 | 11.672,47 | 10.682,10 | 12.576,79 | 12.485,86 |

| | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 16. Gastos financieros. | -759.409,95 | -519.318,29 | -374.476,37 | -260.150,91 | -248.938,52 | -366.358,65 | -544.756,34 | -637.282,34 |
| 19. Otros ingresos financieros y gastos de carácter financiero | 57.384,24 | 136.272,02 | 81.503,72 | | | | | |
| | | | | | | | | |
| A.2) RESULTADO FINANCIERO (15+16+17+18+19) | -693.667,39 | -376.254,78 | -287.702,13 | -252.721,19 | -237.266,05 | -355.676,55 | -532.179,55 | -624.796,48 |
| A.3) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2) | 1.697.548,92 | 820.865,79 | 1.466.931,59 | 1.962.848,11 | 758.736,45 | 2.017.718,71 | 2.131.761,86 | 2.100.452,06 |
| | | | | | | | | |
| 24. Impuestos sobre beneficios. | -54.027,57 | -53.068,55 | -10.136,80 | -14.834,86 | | | -12.176,05 | 0 |
| | | | | | | | | |
| A.4) RESULTADO DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS (A.3+23) | 1.643.521,35 | 767.797,24 | 1.456.794,79 | 1.948.013,25 | 758.736,45 | 2.017.718,71 | 2.119.585,81 | 2.100.452,06 |
| | | | | | | | | |
| B) OPERACIONES INTERRUMPIDAS | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| 25. Resultado del ejercicio procedente de operaciones interrumpidas neto de impuestos. | | | | | | | 0 | 0 |
| | | | | | | | | |
| A.5) RESULTADO CONSOLIDADO DEL EJERCICIO (A.4+24) | 1.643.521,35 | 767.797,24 | 1.456.794,79 | 1.948.013,25 | 758.736,45 | 2.017.718,71 | 2.119.585,81 | 2.100.452,06 |
| Resultado atribuido a la sociedad dominante | | 0 | 1.456.794,79 | 1.948.013,25 | 758.736,45 | 2.017.718,71 | 2.119.585,81 | 2.100.452,06 |
| Resultado atribuido a socios externos | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

- **MATIA INSTITUTU GERONTOLOGIKOA – INGEMA FUNDAZIOA**

| | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A) OPERACIONES CONTINUADAS** | | | | | | | | |
| **1. Importe neto de la cifra de negocios.** | **1.707.153,95** | **1.153.514,53** | **2.582.255,28** | **1.163.715,16** | **1.049.442,00** | **978.373,54** | **896.551,89** | **864.948,05** |
| **4. Aprovisionamientos.** | **-956.211,33** | **-827.532,28** | **-669.329,01** | **-214.332,67** | **-123.039,95** | **-160.958,84** | **-143.548,64** | **-163.344,79** |
| a) Consumo de mercaderías. | | | | | | | | |
| b) Consumo de materias primas y otras materias consumibles. | | | | | | | | |
| c) Trabajos realizados por otras empresas. | | | | | | | | |
| **5. Otros ingresos de explotación.** | **2.081.116,97** | **1.844.511,04** | **36.210,68** | **403.436,88** | **402.187,84** | **411.687,84** | **414.523,69** | **552.947,68** |
| a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente. | | | | | | | | |
| b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio. | | | | | | | | |
| **6. Gastos de personal.** | **-1.815.671,37** | **-1.671.319,96** | **-1.324.983,55** | **-1.022.866,69** | **-973.240,62** | **-844.141,79** | **-725.095,01** | **-948.122,32** |
| a) Sueldos, salarios y asimilados. | -1.373.709,21 | -1.279.052,27 | -1.026.304,94 | -777.760,76 | -713.960,49 | -619.943,96 | -569.671,70 | -775.690,05 |
| b) Cargas sociales. | -441.962,16 | -392.267,69 | -298.678,61 | -245.105,93 | -259.280,13 | -224.197,83 | -155.423,31 | -172.432,27 |
| **7. Otros gastos de explotación.** | **-481.106,18** | **-327.038,17** | **-199.783,36** | **-135.122,62** | **-299.607,08** | **-266.516,56** | **-258.830,70** | **-215.898,09** |
| a) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales. | | | | | | | | |
| b) Otros gastos de gestión corriente. | | | | | | | | |
| **8. Amortización del inmovilizado.** | **-868.320,72** | **-219.199,66** | **-10.633,05** | **-9.241,44** | **-5.267,76** | **-8.108,06** | **-10.156,44** | **-29.563,44** |
| **9. Subvenciones, donaciones y legados traspasados al excedente del ejercicio** | **522.253,32** | **132.204,31** | **2.187,84** | | | | | |

| | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A) OPERACIONES CONTINUADAS** | | | | | | | | |
| **11. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado.** | | | 9,8 | | -100,68 | | | |
| a) Deterioros y pérdidas. | | | | | -100,68 | | | |
| b) Resultados por enajenaciones y otras. | | | | | | | | |
| **12. Otros resultados.** | 211,76 | 31.775,86 | | | | | | |
| **A.1) RESULTADO DE EXPLOTACIÓN (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13+14)** | 189.426,40 | 116.915,67 | 415.934,63 | 185.588,62 | 50.373,75 | 110.336,13 | 173.444,79 | 60.967,09 |
| **15. Ingresos financieros.** | 11.670,37 | | 242,97 | 508,81 | | 6.150,46 | | |
| a) De participaciones en instrumentos de patrimonio. | | | | | | | | |
| Imputaciones de subvenciones, donaciones y legados de carácter financiero | | | | | | | | |
| b) De valores negociables y otros instrumentos financieros. | | | 242,97 | 508,81 | | 6.150,46 | | |
| **16. Gastos financieros.** | -194.203,66 | -197.739,85 | -106.881,78 | -11.723,45 | -5.238,05 | -9.279,41 | -22.955,13 | -17.255,83 |
| **17. Diferencias de cambio** | -771,46 | | | | | | | |
| **19. Otros ingresos financieros y gastos de carácter financiero** | | 145.388,90 | 96.154,99 | | | | | |
| **A.2) RESULTADO FINANCIERO (15+16+17+18+19)** | -183.304,75 | -52.350,95 | -10.483,82 | -11.214,64 | -5.238,05 | -3.128,95 | -22.955,13 | -17.255,83 |
| **A.3) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)** | 6.121,65 | 64.564,72 | 405.450,81 | 174.373,98 | 45.135,70 | 107.207,18 | 150.489,66 | 43.711,26 |
| **24. Impuestos sobre beneficios.** | | | | | | | | 0 |
| **A.4) RESULTADO DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS (A.3+23)** | 6.121,65 | 64.564,72 | 405.450,81 | 174.373,98 | 45.135,70 | 107.207,18 | 150.489,66 | 43.711,26 |
| **B) OPERACIONES INTERRUMPIDAS** | | | | | | | | |
| **25. Resultado del ejercicio procedente de operaciones interrumpidas neto de impuestos.** | | | | | | | 0 | 0 |
| **A.5) RESULTADO CONSOLIDADO DEL EJERCICIO (A.4+24)** | **6.121,65** | **64.564,72** | **405.450,81** | **174.373,98** | **45.135,70** | **107.207,18** | **150.489,66** | **43.711,26** |
| **Resultado atribuido a la sociedad dominante** | 6.121,65 | 64.564,72 | 405.450,81 | 174.373,98 | 45.135,70 | 107.207,18 | 150.489,66 | 43.711,26 |

GALDU-IRABAZIEN KONTU AUDITATUA, 2024KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKIONA (eurotan)

- **DIRU SARRERAK**

**OSASUN ARLOAN** honako hau azpimarra dezakegu:

16.192.000 euroko guztizko fakturazioarekin itxi dugu urtea, eta aurrekontuan jasotako zenbatekoa 16.356.000 eurokoa zen. Alderdi pribatuan, guztizko fakturazioa 142.280 eurora iritsi da.

- **Ospitalea**

1.667 ospitaleratze izan ditugu, aurreko urteko epealdi berean baino 169 gehiago.

Hazkunde hori ospitaleko langileek urtean zehar egin duten ahaleginaren ondorio da, pazienteak goizez eta arratsaldez ospitaleratzeko prest egon baitira.

Altei dagokienez, urtean 1.654 eman ditugu, hau da, 138 alta hilean, batez beste. Datua oso ona da, 2023an batez besteko alta kopurua 124koa izan zela kontuan hartuta. Aurreko urtean baino 157 alta gehiago eman ditugu.

Okupazioari erreparatuta, batez besteko egonaldia 21,14 egunekoa denez, urtean zehar okupazio maila dezentekoa da. Une batzuetan % 95 ingurukoa izan da. Edonola ere, urteko batez besteko okupazioa % 82,69koa izan da, eta aurreko urtekoa, berriz, % 81ekoa.

Psikogeriatriako eta susperraldiko unitateetan izan dira okupazio mailarik handienak, urtean % 90 ingurukoak.

- **Kanpoko kontsultak**

Kontsulten jarduerari dagokionez, iazko data berean baino 308 kontsulta gehiago egin ditugu. Izan ere, area horretan langile gehiago jartzeko erabakia hartu da, kanpoko kontsulten eskari nabarmenari erantzun ahal izateko.

- **Errehabilitazioa**

Aurreko urtean baino 2.544 tratamendu gehiago egin dira fisioterapian, batez ere arlo horretako langileek aurreko ekitaldian baino lanordu gehiago izan dituztelako (mila eta bostehunetik gora lanordu gehiago).

Bi arrazoi izan dira 2024an fisioterapeutek ordu gehiagoz lan egitea eragin dutenak: epealdi berean kontratatutako ordu gehiago izan direlako eta kudeaketa orduak aurreko urtekoak baino ia 300 gutxiago izan direlako.

- **Logopedia**

Logopedian, joan den urtean baino 1.448 tratamendu gehiago egin ditugu. Hori dela eta, fakturazioak ere gora egin du.

**EGOITZEN EREMUAN**, aurreikusitakoak baino emaitza hobeak izan dituzte ia zentro guztietan. Diru sarrerei erreparatuta, GFAk % 4,8 handitu ditu tarifak. Igoera hori urtearen bukaeran gauzatu da: urrian Matia Fundazioaren eta San Martin Fundazioaren egoitzetan eta eguneko zentroetan, azaroan Gerozerlaneko egoitzetan eta abenduan IZAn.

Okupazioan, azpimarragarria da 2024an itunpeko egin diren plazak.

- Bermingham egoitzan: adinekoentzako 4 plaza.
- Lamourous egoitza zentroan: 9 egoitza plaza adinekoentzat UPSI unitatean eta 5 plaza adinekoentzat.

2024ko abenduaren 31n, batez besteko okupazioa % 97,92koa izan da. 2023ko data berean okupazioa % 95,83koa izan zenez, hobera egin dugu. Aurreikusitako % 98,40ra hurbiltzen ari gara, batez ere Lamourouseko eta Berminghameko itunpeko plaza berriei esker eta azken hilabeteetan Egurtzegiko aniztasun funtzionaleko unitatean okupazioa % 100ekoa izan delako.

Jarraian, 2024-12-31n izan dugun okupazioaren ehunekoen datuak azaltzen dira (egun horretako datua, ez urteko metatua), arlo publikoa eta pribatua bereizita. Ikusten denez, okupazio maila oso handia da zentro gehienetan:

| | | | | A 31 de diciembre de 2024 | |
|---|---|---|---|---|---|
| **CENTRO** | **SERVICIO** | **TIPO** | **PLAZAS** | | |
| Centro Bermingham | UR | **Publico** | 28 | 27 | 96% |
| Centro Bermingham | UR | **Privado** | 12 | 12 | 100% |
| Elizaran | AT | **Publico** | 10 | 10 | 100% |
| Elizaran | UCAS | **Publico** | 18 | 18 | 100% |
| Egurtzegi | UR | **Publico** | 107 | 106 | 99% |
| | UR | **Privado** | 1 | 1 | 100% |
| | UDF | **Publico** | 19 | 19 | 100% |
| Iza | UDF | **Publico** | 76 | 76 | 100% |
| | | **temporales (*)** | 1 | 0 | 0% |
| | | **urgencia (*)** | 1 | 0 | 0% |
| Rezola | UR | **Publico** | 106 | 106 | 100% |
| | | **Temporales (*)** | 2 | 0 | 0% |
| Rezola | UR | **Privado** | 15 | 15 | 100% |

| | | | | A 31 de diciembre de 2024 | |
|---|---|---|---|---|---|
| **CENTRO** | **SERVICIO** | **TIPO** | **PLAZAS** | | |
| Argixao | SOCIO | **Publico** | 27 | 25 | 93% |
| | UDF | **Publico** | 10 | 10 | 100% |
| | UR | **Publico** | 71 | 70 | 99% |
| | | **Privado** | 9 | 9 | 100% |
| Lamourous | UR | **Publico** | 114 | 114 | 100% |
| Lamourous | UR | **Privado** | 27 | 27 | 100% |
| Otezuri | UR | **Publico** | 89 | 89 | 100% |
| Otezuri | UR | **Privado** | 21 | 18 | 86% |
| Petra Lekuona | UR | **Publico** | 103 | 99 | 96% |
| | | **Privado** | 2 | 2 | 100% |
| | URTMS | **Publico** | 14 | 14 | 100% |
| | | **Temporales (*)** | 2 | 1 | 50% |
| | | **Privado** | 0 | 0 | 0% |

* Aldi baterako edo urgentziazko plazak: plazaren % 75 kobratzea

| **TOTAL** | **885** | **868** | **98,10%** |
|---|---|---|---|
| Publico | **798** | **784** | **98,20%** |
| Privado | **87** | **84** | **96,60%** |

Pertsona ardatz duen partaidetzaren euskarri izango den kudeaketa eredu berriari buruzko pilotajea izan da 2024an landu dugun proiektuetako bat. Lamourousen jarriko da martxan 2025eko urtarrilean, eta unitateko lantaldea osatuko duten pertsonak (5 guztira) zehaztu dira. Etxebizitzako arduradunaren rola bideratzea eta jasangarritasun ekonomikoa eta denborazkoa ziurtatzea ditu xede

Arduradun horren funtzioak eta zereginak landu dira jada, eta kategoriaren eta ordainsariaren aldaketa mailaka egingo da. Alderdi hori kontu handiz jorratu da, pertsona horien arteko aldeak kontuan hartuta.

Talde batek gidariari lagunduko dio aldi batez. Ikaskuntza epea bete ondoren, talde horrek finkatutako zereginak beste pertsona batzuen esku geratuko dira.

Jarraian, **<u>ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN EREMUKO</u>** jarduera orduen ingurukoak azaltzen dira laburbilduta, etxez etxeko arretako zerbitzu bakoitza kontuan hartuta:

| | 2024 | 2023 | DIFERENCIA | %VARIACIÓN |
|---|---|---|---|---|
| ASP | 26.369,00 | 6.443,00 | 19.926,00 | 309% |
| SAD | 178.269,00 | 143.899,00 | 34.370,00 | 24% |
| VT | 4.918,00 | 5.317,00 | -399 | -8% |
| TOTAL | 209.556,00 | 155.659,00 | 53.897,00 | 26% |

2023ko eta 2024ko orduak alderatuta, hazkunde nabarmena izan da lehen mailako gizarte-arretaren eta etxez etxeko laguntza zerbitzuen kategorietan, eta tutoretzapeko etxebizitzen kategorian, berriz, beherakada txikia nabaritu da. Oro har, metatutako orduen guztizkoak % 26 egin du gora.

Ordizian, urtearen lehen seihilekoan, lizitazioaren amaierarekin batera, zerbitzu orduek behera ezin zuten. Baina kontratu berria aktibatu ondoren orduen kopuruak gora egin du berriro, batez ere laguntzaile pertsonalen atalean.

Oñatin, etxez etxeko laguntza zerbitzuen kontratua beste urtebetez luzatu dugu, 2025-09-30era arte. Kontratu horren lizitazioan beste luzapen bat gehiago zegoen aurreikusita, baina ez da egingo. Udalak jakinarazi digunez, zerbitzu horretara bideratutako aurrekontua gainditu da eta zerbitzua ezin da beste urtebete gehiagorako luzatu.

Tolosan, aurrekontua egitean aurreikusi genituen orduak baino gutxiago izan ditugu, lehiaketa mugaeguneratzear zegoelako eta udalak jada agortuta zuelako zerbitzu horretara bideratutako aurrekontua. Hala, zerbitzu modalitate horretan laguntza jasotzen duten pertsonen kopurua gutxitzen ari da.

Villabonako lehiaketari dagokionez, ekainaren amaieran aktibatu zen bigarren luzapena. Azkenik, aipagarria da apirilean hasi garela Zumarragako etxez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzen. Zerbitzu horretan ere ezarrita dago hileko gehienekoa.

Jarduera pribatuari dagokionez, koordinatzaileak lan nabarmena egiten ari dira zerbitzu pribatuak sustatu eta horiei eusteko. 2024an Ordizian, Villabonan eta Beasainen hasi gara zerbitzu hori eskaintzen.

**EGUNEKO ZENTROAK**

Abenduaren 31ko datuen arabera, eguneko zentroetan % 92,76koa da batez besteko okupazioa, eta % 90,30ekoa zegoen aurreikusita. 2023ko datuekin alderatuta hazkundea nabarmena izan da, orduan okupazioa % 82,81ekoa izan baitzen, batez beste.

Azpimarratzekoa da abenduaren 2an gauzatu dela Fraisoroko eguneko zentroaren kokapenaren aldaketa, eta Usurbilera eraman dela. Nabarmendu nahi dugu, halaber, Egurtzegi zentroak duen plaza pribatua dela eta, Fraisorok ezin izango duela okupazioa % 100ean bete. Bere garaian, Foru Aldundiak onartu egin zuen Egurtzegin plaza bat gehitzea, bertako bigarren modulua itxita zegoelako. Baina Fraisoro Usurbilera lekualdatu denez, bietako plaza publikoetan 40 erabiltzaile har daitezke gehienez ere.

Okupazio mailarik txikienak Rezolan, Egurtzegin eta Fraisoron izaten dira jaiegunetan. Gaiaren jarraipena egiten ari gara, okupazio mailak areagotze aldera.

Hau da eguneko zentroen egoeran 2024ko abenduaren 31n:

| | | | | A 31 de diciembre de 2024 | |
|---|---|---|---|---|---|
| **CENTRO** | **SERVICIO** | **TIPO** | **PLAZAS** | | |
| Elizaran | Laborable | **Publico** | 15 | 13 | 87% |
| | Festivos | **Publico** | 10 | 7 | 70% |
| Fraisoro | Laborable | **Publico** | 20 | 19 | 95% |
| | Festivos | **Publico** | 12 | 6 | 50% |
| Rezola | Laborable | **Publico** | 26 | 25 | 96% |
| | Laborable | **Privado** | 2 | 0 | 0% |
| | Festivos | **Publico** | 18 | 12 | 67% |
| Argixao | Laborable | **Publico** | 30 | 30 | 100% |
| | Festivos | **Publico** | 25 | 23 | 92% |
| | Festivos | **Privado** | 5 | 0 | 0% |
| Lamourous | Laborable | **Publico** | 35 | 34 | 97% |
| | Laborable | **Privado** | 5 | 2 | 40% |
| | Festivos | **Publico** | 10 | 7 | 70% |
| Beasain | Laborable | **Publico** | 18 | 17 | 94% |
| | Festivos | **Publico** | 12 | 12 | 100% |
| Ordizia | Laborable | **Publico** | 20 | 20 | 100% |
| | Festivos | **Publico** | 12 | 10 | 83% |



Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

| | | | | A 31 de diciembre de 2024 | |
|---|---|---|---|---|---|
| Egurtzegi | Laborable | **Publico** | 21 | 20 | 95% |
| | Laborable | **Privado** | 1 | 1 | 100% |
| | Festivos | **Publico** | 12 | 7 | 58% |
| Lugaritz | Laborable | **Público** | 39 | 36 | 92% |
| | Laborable | **Privado** | 1 | 1 | 100% |
| | **TOTAL** | | **344** | **302** | **87,80%** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Laborable | Publico | **224** | **214** | **95,50%** |
| Laborable | Privado | **9** | **4** | **44,40%** |
| Festivos | Publico | **111** | **84** | **75,70%** |
| Festivos | Privado | **5** | | |
| | **TOTAL** | **344** | **302** | **87,80%** |

**Lugaritzeko apartamentuei** dagokienez, jarraian azaltzen den taulan zehazten da bizileku horien okupazioaren egoera txosten honen datan.

| | | | | A 13 de enero de 2.025 | |
|---|---|---|---|---|---|
| **CENTRO** | **SERVICIO** | **TIPO** | **PLAZAS** | | |
| Lugaritz | AT | **Contrato** | 42 | 96% | 40 |
| | | **Reservas** | | | 0 |
| | VIIVENDAS CON CUIDADOS | **VIVIENDAS CON CUIDADOS** | 10 | | 10 |
| | | **Reservas** | | | 0 |
| | | **Formación** | 1 | 100% | 1 |
| | | **TEMPORAL** | 1 | 0% | 0 |
| | | **TOTAL** | **54** | **94,44%** | **51** |

Ekainaren hasieran jarri zuten martxan eraikina auzoarekin lotzen duen igogailua, eta horrek komunitatearekin konektatzeko aukera ematen du; izan ere, sarritan lotura falta hori izan da apartamentuak ez alokatzeko arrazoia. Gainera, okupazioa handitzeko helburuarekin, erabilgarri dauden hamar etxebizitzatan (laugarren solairuan) laguntza eskaintzeko proposamena jarri zen martxan. Laguntza hori Donostiako lehen mailako gizarte-arretako (Matia Goxara) taldearen bidez eskaintzen da. Hala, etxebizitza horietako erabiltzaileek egunean bi orduz edo jaso dezakete behar duten laguntza, premia duten uneetan. Azken asteetan nabarmen egin du gora horrelako etxebizitzen eskariak, eta gaur egun horietako 8 okupatuta daude.

Horrez gain, abuztuan Lugaritzeko erabiltzaile bati egindako elkarrizketa argitaratu zuen El Diario Vasco egunkariak, eta horrek eta apartamentuen prezioaren jaitsierak nabarmen hobetu dute okupazioa.

Horrenbestez, 2 etxebizitza eta behin behineko beste bat bakarrik daude libre. Garajeak eta trastelekuak alokatzeko negozio estrategia ere ari gara aztertzen, eskaria areagotzeko.

Egurtzegiko apartamentuei dagokienez, obra amaitu da. Udalarekiko hitzarmena onartu da, baina izapide administratiboren bat falta da (sinatzea).

**BALORAZIOEN ARLOAN**, apirilaren 20an desgaitasunaren lege berria indarrean jarri ondoren, 4 gizarte langile kontratatu behar izan genituen erabiltzaileen balorazio prozesu osoa egiteko, profesionalaren balorazioarekin hasi eta azken txostenarekin amaitzeraino. Akordio batera iritsi ginen Foru Aldundiarekin, 4 gizarte langile horiek kontratatzearen ondoriozko kostuaren hileko diru sarrera bermatzeko. Foru Aldundiak konpromisoa hartu zuen 2023aren amaieratik 2024aren hasierara bitarte desgaitasunaren balorazio esparru berria eta prozesu berriak kontuan hartuko dituen lehiaketa abian jartzeko.

Horrez gain, desgaitasun balorazioak egitearen konplexutasuna dela eta, gure baloratzaileek aurreko legean ezarritakoa baino denbora luzeagoa behar dute, eta horrek eragin negatiboa du baloratzaile bakoitzaren efizientzian. Denbora gehiago behar dugu lehen egiten genituenak baino balorazio gutxiago egiteko. Haiekin egindako azken bileretan, zerbitzua bideragarria izateko desgaitasun balorazioei eta egiaztapen teknikoei lotutako tarifak igo behar direla helarazi diegu.

Urriaren 24an argitaratu ziren kontratu berriaren baldintza agiriak. Bi urterako lizitazioa zen, beste bi urtez luza zitekeena. Kontratua bi ataletan egituratuta zegoen: bata jarduera eskariaren maila egonkorrari zegokion, eta bestea lehen atalean sartzen ez zen eskaerari buruzkoa zen. Gainera, aurreko kontratuan bezala, honetan ere urteko gutxieneko diru sarrera bermatzen zen (gaur egun hala dugu). Halaber, urteko % 3ko soldata igoera ezartzen zuen.

Kontratua zorroztasunez aztertu ondoren, zenbait aldagai zirela eta, lizitaziora ez aurkeztea erabaki genuen. Zerbitzu horrek gure asmoari ez diola ekarpenik egiten uste dugu, hori izan da arrazoi nagusia.

**EAPS CAIXA arreta psikosozialeko zerbitzuari** dagokionez, ospitaleen eta egoitzen eremurako 2024an sinatu diren kontratuetarako, Caixak handitu egin ditu dirulaguntzen zenbatekoak, aurreko urteekin alderatuta: % 8 ospitaleen eremuan eta % 4 egoitzetakoan. Hala, urtean 248.881 euro eta 66.988 euro jaso ditugu, hurrenez hurren.

**IKERKETA ARLOAN**, aurrekontuan sartutako diru sarreren % 90 esleitu dira 2024-12-31rako. Esleituetan, zenbatekoa hainbat arrazoi direla eta handitu da: Madrileko lizitazio lehiaketa (40.000 euro) eta BIDekoa (23.177 euro) irabazi ditugu, eta Aragoiko proiektuaren diru sarrerak 2024an erregistratuko dira (124.000 euro).

Institutuaren emaitza kontuak emaitza jasangarria erakusten du. Diru sarrerekin (Matia Fundazioak egindako 200.000 euroko ekarpena barne) pertsonal gastuak, proiektuen gastuak eta gastu finkoak estali dira.

Honela banatu da 2024. urterako aurrekontuan jasotako jarduera: % 7 kontratu pribatuetan, % 65 kontratu publikoetan, % 21 hitzarmen publikoan eta % 6 lehiakortasun funtsetan. Kontratu eta hitzarmen publikoak gehitzeko ahaleginean jarraitzen dugu. Dena den, arlo horretako jarduerari eusten diogu, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat interesgarriak diren zenbait proiektutan parte hartzeko bidea baita.

Hauek dira 2024ko diru sarrera nagusiak, behin eta berriz fakturatzen direnak:

- Sendian: 188.135 euro.
- PECEF prestakuntza: 90.268 euro.
- Euskadi Lagunkoia: 360.000 euro.
- Zabaltzen: 150.000 euro.
- Etxean bezala: 620.865 euro.

Horiei LH Lehiakorrerako dirulaguntzak gehitu behar zaizkie. Batzuk urte anitzekoak dira, eta aurreko urteetatik datoz.

«Etxean bezala» proiektuak jarraipena izan du 2024an. Ikerkuntza esparruetan gidak egitea eta eredua beste lurralde batzuetan ezartzeko prestatzea izan dira zeregin nagusiak.

2024an, halaber, Aragoiko Gobernurako ikerketa proiektuan egin dugu lan (880.000 euro 16 hilabetetan). 2024an 311.100 euro izango dira.

Ikerkuntzaren arloan, 2024an bi ildo berri lantzea izan da asmoa:

1- Matia Eskola plataformaren bidez kanpora merkaturatzea urteotan egindako ikerkuntzarekin eskuratutako *know howa*.

2- Egoitzako zaintzen diagnostiko lanak egitea.

- **GASTUAK**

Gastuen partidan, alderdi hauek nabarmendu behar ditugu batik bat:

**PERTSONAL GASTUAK**

- Emaitza kontuko sarreren % 77 hartzen du partida horrek.

  - **Hitzarmen kolektiboaren inguruko akordioa**

Hitzarmena 2023an bukatu zenez, 2024an zenbait aukera proposatu dira, eta oraindik negoziatzen ari gara.

Sektorean eraginkortasun mugatuko hitzarmena ezarri da, eta % 3ko soldata igoera aurreikusten du 2024rako. Igoera hori 2024ko urtarrileko eta otsaileko nominetan gauzatu da jada.

Matia Goxaran KPIaren igoera ezarri da hitzarmenak hala eskatzen zuen lehiaketetan. Tarifa, udalak ordaindu ez badu, lehiaketaren arabera zuzkitu da.

Azkenik, aipagarria da gaixotasun arruntagatiko bajak % 9,48 izan direnez, 2024ko bigarren bajak eta hurrengoak ezarritako legezko ordainsarien arabera arautu direla, hau da, osagarririk gabe.

### ○ Lanbide kategoria nagusien presentziarik ezaren kostua

Jarraian, absentismoaren datuak emango ditugu, aurrekontuan jasotakoekin alderatuta

| FM + GEROZERLAN | PRESUPUESTO | REAL |
|---|---|---|
| Auxiliares asistenciales | 13,83% | 16,18 |
| Enfermeras | 2,78% | 8,24% |
| Fisios | 5,20% | 5,98% |
| Cocinero | 6,87% | 12,49% |
| Limpieza | 9,84% | 11,72% |
| **Total general** | **9,24%** | **12,86%** |

| FM + GEROZERLAN | PRESUPUESTO | REAL |
|---|---|---|
| Auxiliares asistenciales | 97.406,00 | 101.230,00 |
| Enfermeras | 2.628,00 | 7.717,00 |
| Fisios | 4.707,00 | 4.547,00 |
| Cocinero | 2.625,00 | 6.063,00 |
| Limpieza | 12.918,00 | 15.524,00 |
| **Total general** | **124.531,00** | **149.025,00** |

Absentismo horren barruan, gaixotasun arruntagatiko absentziak eta ordaindutako baimenak (hitzarmenari lotutakoak) hartu ditugu kontuan. Aldi baterako ezintasunen batez besteko proportzioa % 75 ingurukoa izaten da. Nolanahi ere, urtearen lehenengo hilabeteetan % 82ra iritsi da laguntzaileen figuran. Izan ere, urteko lehenengo hilabeteetan pertsonek ez dituzte hartzen hitzarmenean jasota dauden baimenak, aurreragorako uzten dituzte.

Aldi baterako ezintasunagatiko absentzia % 9,48koa izan da, ordu guztiei dagokienez (2023an % 8,38koa izan zen). Gogor lan egin behar dugu aldi baterako ezintasunagatiko bajak gutxitzeko.

Ikuspegi ekonomikotik, aldi baterako ezintasuna berreskuratzeko Gizarte Segurantzaren partidak eragina du kostu ekonomikoan. Absentzia zenbat eta luzeagoa izan orduan eta handiagoa da bajengatik Gizarte Segurantzatik berreskuratzen dugun zenbatekoa.

Historikoki, absentismoa arretako laguntzaileen artean gertatu da batez ere. Edonola ere, badirudi erizainen eta sukaldeko profesionalen artean aurreikusitakoa baino absentzia gehiago egon dela.

- **Garbiketako langileak**

2024an garbiketako zerbitzu propioa egon da martxan zentro guztietan, Rezolan izan ezik. Horretan, maiatzean egin da aldaketa. Arlo horretan, lantaldea osatu da garbiketaren kostua (langileen eta produktuen kostua) aztertu eta kanpoko garbiketa zerbitzuaren kostuarekin alderatzeko.

- **Matia Goxarako langileak**

Hau izan da absentziaren bilakaera etxez etxeko laguntza zerbitzuan:

## DIRULAGUNTZAK

Gizarte zerbitzuetako zentroetan inbertsioak egiteko GFAren laguntzen kontura, zenbateko hauek eman zizkiguten:

| | | 2023 | 2024 | TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| ARGIXAO | CREACION DE NUEVA UNIDAD | | 780.587 | 780.587 |
| PETRA | NUEVO SISTEMA DE LLAMADAS | 138.103 | 34.526 | 172.629 |
| OTEZURI | VESTUARIOS COCINA | | 19.450 | 19.450 |
| FRAISORO | REHABILITACION ENVOLVENTE | 200.000 | 800.000 | 1.000.000 |
| | | **338.103** | **1.634.563** | **1.972.666** |

Petrako deien sistema eginda dago, eta 2024ko urtarrilean ekin zaio Fraisoroko proiektuari.

Argixaon unitate berri bat sortzeko laguntzei uko egin behar izan genien, baina Fraisoroko proiektua aurrera doa. Urtarrilean 200.000 euro kobratu genituen, eta justifikazioa egin ondoren gainerako 800.000 euroak jasoko ditugu.

Horrez gain, Usurbilgo Udalak 480.000 euroko laguntza eman zigun autobus geltokia eta zentro gerontologikoa lotzen dituen igogailua eraikitzeko herrian. Halaber, Foru



Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

Langileren batek beste langile baten aldetik indarkeria edo jazarpena jasaten badu, protokolo zehatz bat jartzen da abian: kasuaren berri duen pertsonak edo kaltetutako pertsonak Segurtasun eta Osasun Batzordeari ematen dio gertatuaren berri, dela prebentzioko ordezkarien bidez, dela langileen ordezkarien bidez.

Horretarako, ordea, jazarpenak 6 hilabetez iraun behar du, gutxienez, eta pertsona baten kontra behin eta berriro egin behar da.

Susmoa dagoen gehienetan, arduradunaren edo taldearen esku hartzearekin konpontzen dira zerbitzuan bertan. Kaltetuek, langileen ordezkariek edo prebentzioko ordezkariek (sindikatuak) har dezakete parte bileran.

2024an, 5 aldiz aktibatu da jazarmen susmoari dagokion protokoloa. Kasu horietako bitan arrazagatiko jazarpenaren ebidentzia zegoela ondorioztatu zen, eta diziplina neurriak hartu ziren. Gainerako hiruretan ez zen jazarpen ebidentziarik ondorioztatu, langileen arteko arazoak baizik, haien arteko harremanetan eta informazioaren transmisioan.

19. artikuluko prestakuntzetan azaltzen da nola antolatzen den prebentzioa Matian, eta zer ordezkaritza organo dauden: segurtasun eta osasun batzordeak, prebentzioko delegatuak, langileen ordezkariak (sindikalak), baita zentro eta zerbitzuetako arduradunak ere, Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuaz gain.

Jazarpen protokoloa dagoela eta beharrezkoa ikusiz gero erabili egin daitekeela ere azaltzen da.

PROTOKOLOA. Lanean debekatuta dauden portaerak, jazarpen morala direlako

- **Agintekeria**
  - Langilea etengabe jardunik gabe edo inkomunikatuta uztea, horretarako inolako arrazoirik egon gabe.
  - Langileari esleitu zaizkion bitartekoekin bete ezin diren aginduak ematea.
  - Alferrikako lanak, balio produktiborik ez dutenak, eginaraztea.
  - Enpresaren aurkako kexak, salaketak edo eskariak aurkeztu dituzten langileen edo lagundu dietenen aurkako errepresaliak.

- **Tratu iraingarria**
  - Langilea behin eta berriro iraintzea edo gutxiestea.
  - Beste batzuen aurrean behin eta berriro errieta egitea.
  - Lanari edo bizitza pribatuari buruzko zurrumurru faltsuak zabaltzea.

- **Jazarpen diskriminatzailea (TRLISOSen 8.13 bis artikulua), honako hauen ondorioz:**
  - Biktimaren sinesmen politiko edo erlijiosoen ondorioz.
  - Arrazoi sindikalen ondorioz.
  - Sexuaren edo sexu orientazioaren ondorioz.
  - Emakumeak haurdun egotearen edo ama izatearen ondorioz.
  - Adinaren edo egoera zibilaren ondorioz.
  - Jatorriaren, etniaren edo nazionalitatearen ondorioz.
  - Desgaitasunaren ondorioz.

- **Jazarpen moralak ez direnak (baina bestelako arau hausteak izan daitezkeenak)**
  - Lan baldintzak nabarmen aldatzea, arrazoirik gabe eta legez ezarritako prozedurari jarraitu gabe.
  - Aldian behingo ekintza diskriminatzaileak (TRLISOSen 8.12 artikulua).
  - Lanaldia luzatzeko edo lan jakin batzuk egiteko presioak.
  - Langile batzuen kontrako bereizkuntzarik gabeko portaerak.
  - Gatazkak grebetan, protestetan eta abarretan.
  - Pertsona batzuek elkarren artean koordinatu gabe egindako irainak.
  - Lana ondo ez egiteagatik, deskalifikatu gabe kargu hartzea.
  - Gatazka pertsonal eta sindikalak.

## Berdintasun Plana

2022an onartu ziren Matiako eta Gerozerlaneko Berdintasun Planak. 2023an, bi erakundeetako enpresa batzordeekin batera, 2023-2026 aldirako ibilbide orria jarri genuen martxan, guztion lanaren bidez emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasun handiagoa lortzeko. Indarrean dagoen berdintasun planean honako neurri hauek hartu ziren:

- **Lanaldiaren iraupena eta hura egokitzeko neurriak:** adingabeak zaintzeko lanaldia murriztea eskatzen dutenei urteko egutegia murrizteko aukera ematea, familia bizitzaren premiak aurretiaz planifikatu ahal izateko.
- **Trebakuntza neurriak:** emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza berezia ematea langileen kudeaketaren alorrean ari diren pertsona guztiei; eszedentzian dauden pertsonei prestakuntzarako bidea erraztea; familia kontziliazioari lotutako egoeretan jardunaldia murrizteko aukera eskaintzea; hizkera egokia erabiltzeko kultura sustatzea eta lanpostu zehatz bat genero jakin batekin lotzea dakarten izen guztiak baztertzea eta hizkera inklusibo batera jotzea.
- **Sustapenari eta ordainsariari lotutako neurriak:** lan hitzarmen propioa ezarriko dela bermatzea, generoagatiko, arrazagatiko edo erlijioagatiko diskriminazio guztiak baztertuta; gizon edo emakumeak gutxi ordezkatuta dauden taldeetan (hala arreta zuzenekoetan nola administraziokoetan) lanbide sustapenerako deialdietara aurkez daitezen bultzatzea; zerbitzu guztietan generoaren araberako osaera orekatua egoteko neurriak ezartzea eta, langile berriak hautatu behar direnean, meritu eta kualifikazio berdina egonez gero, zerbitzuan presentzia txikiena duen sexua lehenesteko irizpidea erabiltzea.
- **Pertsonen bizitza pertsonala eta familia bateragarri egiteko neurriak:** lan hitzarmen propioa eta bertan zehaztutako gizarte hobekuntzak ezarriko direla bermatzea; alegia:
    - Ezkontzeagatiko edo izatezko bikotea egiteagatiko baimena.
    - Bikotekidea erditzeagatiko baimena.
    - Bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen, neba-arreben, biloben eta aitona-amonen gaixotasun larriagatiko baimena.
    - Ezkontide/bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen eta neba-arreben heriotzagatiko baimena.
    - Neba-arreben eta seme-alaben ezkontzagatiko baimena.
    - Ohiko etxebizitza aldatzeagatiko baimena.
    - Gizarte Segurantzako espezialistarengana joateko behar den denborarako baimena.
    - Norberaren eginbeharretarako baimena.

- Edoskitze aldian, ordubeteko edo horren pareko atsedenaldia lanaldi bakoitzean, haurrak urtebete izan arte. Baimen hori amak nahiz aitak erabil dezake, biak ala biak lanean ari badira.
- Semea edo alaba zaintzeko eszedentzia, adingabeak 3 urte bete arte —lanpostua gordeko da eszedentziaren indarraldi osoan—.
- Azterketak egiteko lanaldirako baimena.
- 1 eta 5 hilabete arteko soldatarik gabeko baimena.
- 5 urtera arteko borondatezko eszedentzia, lehenengo 3 urteetan lanpostua erreserbatuta.
- Lanaldia adostutako portzentajean murrizteko eskubidea, jatorrizko lan kontratua aldatu gabe.
- «Urte sabatikoaren zikloa» ezartzeko aukera, honakoaren arabera: 5 urteko epean soldataren % 80 jasoko du langileak, lehenengo 4 urteetan lanaldiaren % 100 eginda eta 5. urtean lanetik libre geratuta.
- Hala eskatzen duten 55 urtetik gorako langileek lehentasuna izango dute gaueko txandarik gabeko lanpostu hutsak betetzeko.

- **Sexua dela eta lanean egiten den jazarpenaren aurkako prebentzio neurriak:** «Jazarpen kasuetan jarduteko prozedura», «Arrisku psikosozialak saihesteko prozedura: gatazken kudeaketa portaera erasokorren aurrean», eta «Balorazio zerbitzuan indarkeria eta erasoak prebenitzeko eta halakoak gertatzen direnean jarduteko neurriak» bete egingo direla bermatzea, Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bitartez.

## Langileei laguntzeko neurriak

Matiak erakundean ari diren langileei laguntzeko ahalegina egiten du, beraien egunerokoa ahalik eta errazena izan dadin. Lan hitzarmenean jasota dauden laguntza neurriak erabiltzen dira.

Matian lan egiten duten pertsonen egunerokoari eragiten dioten gizarte hobekuntzak dira.

- Ezkontzeagatik.
- Emaztea/bikotekidea erditzeagatik.
- Ezkontidearen/bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen, anai-arreben, biloben edo aitona-amonen gaixotasun larriagatik.
- Ezkontide/bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen eta neba-arreben heriotzagatik.
- Neba-arreben, seme-alaben edo aitaren/amaren ezkontzagatik.
- Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik: egutegiko 1 egun.
- Langileak Gizarte Segurantzako espezialisten mediku kontsultara joateko behar duen denbora gehienez 16 ordukoa izango da urtean. Ezkontideari edo ezkontza ahaidetasunezko lehen mailako ahaideei laguntzea sartzen da.

- Norberaren eginbeharretarako.
- Edoskitzea: 1 orduko atsedenaldia lanaldi bakoitzean, edo horren proportzionala lehenengo 12 hilabeteetan.
- Adingabea zaintzeko eszedentzia.
- Matian garatzen dituzten lanbide jardueretako berezko ikasketetarako ikastetxe ofizialetan azterketak egiteko baimena.
- Soldatarik gabeko baimena eskatzen duten langileentzat, 1-5 hilabeteko aldirako.
- Langileak lanaldia murrizteko eskubidea izango du, adostutako ehunekoan, jatorrizko lan kontratua aldatu gabe.
- Borondatez, eskatzen duen langileari «urte sabatikoaren zikloa» aplikatuko zaio.
- Hala eskatzen duten 55 urtetik gorako langileek lehentasuna izango dute gaueko txandarik gabeko lanpostu hutsak betetzeko.

## Lanbide garapenaren eredua

2003. urteaz geroztik, jarduera eta garapen profesionala gaitasunen arabera ebaluatzeko eredua dauka Matia Fundazioak, azken urteetan eguneratuz joan dena. Azken eguneraketa 2014an egin zen, ebaluazio sistema errazagoa eta bizkorragoa zehazteko.

- **Dibertsitatea eta integrazioa**

Matiak hasiera-hasieratik izan du desgaitasuna duten pertsonekiko sentiberatasuna. 2024. urtearen amaieran, 46 dira Matia Fundazioan, Gerozerlanen edo Zaintzatarin desgaitasun edo minusbaliotasunen batekin kontratatuta egon diren pertsonak.

50 langile baino gehiago dituzten erakunde guztietan bezala, desgaitasuna duten pertsonek langileen % 2 izan behar dute, gutxienez, Matia Fundazioan, Gerozerlanen, Goxaran eta Zaintzatarin. Lau erakunde horiei dagozkien txostenak aurkeztu dira Lanbiden.

**Desgaitasuna duten pertsonen plantilla, taldearen arabera, 2024an:**

| | | Emakumeak | | | Gizonak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | < 30 urte | 30-49 urte | > 50 urte | < 30 urte | 30-49 urte | > 50 urte | **Globala 2024** |
| Matia Fundazioa | **CEMI** | - | - | - | - | - | - | **0** |
| | **Arduradunen foroa** | - | - | - | - | - | - | **0** |
| | **Gainerako pertsonak** | - | 6 | 12 | - | 1 | 7 | **26** |
| Gerozerlan | **CEMI** | - | - | - | - | - | - | **0** |
| | **Arduradunen foroa** | - | - | - | - | - | - | **0** |
| | **Gainerako pertsonak** | 0 | 3 | 3 | - | 1 | 1 | **8** |
| Matia Goxara | **CEMI** | - | - | - | - | - | - | **0** |
| | **Arduradunen foroa** | - | - | - | - | - | - | **0** |
| | **Gainerako pertsonak** | 0 | 1 | 9 | - | 0 | 0 | **10** |
| Zaintzatari | **CEMI** | - | - | - | - | - | - | **0** |
| | **Arduradunen foroa** | - | - | - | - | - | - | **0** |
| | **Gainerako pertsonak** | 0 | 0 | 1 | - | 1 | 0 | **2** |

* 2024ko plantilla eta desgaitasun kuotaren kalkulua.

- **Deskonexio digitaleko politika**

Gaur egun, Matiako Pertsonak Kudeatzeko taldea deskonexio digitaleko politika bat ari da lantzen, deskonexio horretarako eskubidea bermatzeko, atseden egunetan, baimenetan zein oporretan.

Politika hori langileen ordezkariek onartu behar badute ere, dagoeneko lantzen ari garen deskonexio digitaleko politikaren zirriborroa erantsi dugu.

Azken hamarkadetan gertatutako aldaketa teknologikoek beste aldaketa batzuk eragin dituzte lan harremanen esparruan.

Ordenagailuak, telefono mugikorrak, tabletak eta abar gure lan bizitzaren parte dira, eta eragina dute enpresen eta langileen arteko lan harremanetan. Behar bezala erabiltzen ez badira, arazoak sor ditzakete langileen osasunean (neke informatikoa, *burnout* sindromea, estresa eta abar).

Hori dela eta, garrantzitsua da lan harremanetan esku hartzen duten elementu horien guztien kudeaketa egokia ezartzea.

Testuinguru horretan, deskonexio digitalerako eskubidea lanaldiari eta langileen betebeharrei muga batzuk ezartzeko beharraren ondorioz sortu da, atsedena ahalbidetzeko helburuarekin. Gainera, beharrezkoa da bizitza pertsonalaren eta lanaren kontziliazioa bideragarria izan dadin. Era horretan, indartu egingo dira arlo horretan araututako neurriak.

Matiako Zuzendaritza sentsibilizatuta dago egoera horiekin. Horregatik, deskonexio digitalerako protokoloa onartzea erabaki dugu, langileen legezko ordezkariei kontsulta egin ondoren. Protokolo horrek langileek deskonexio digitalerako eta lanaldia amaitu ondorengo atsedenaldirako duten eskubidea bermatuko du.

Matia osatzen duten sozietateetako langileek deskonexio digitalerako eskubidea izango dute, enpresan legez edo hitzarmen bidez ezarritako lan ordutegitik kanpo haien atsedenaldia, baimenak edo oporrak (baita norberaren edo familiaren intimitatea ere) errespetatzen direla bermatzeko.

1. Lege esparrua

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa indarrean jartzean, beste lege xedapen batzuen artean, Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen da, artikulu berria (20 bis artikulua) txertatzearen bidez. Horren ondorioz, langileen eskubide berri bat arautu da.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 88. artikuluak lan esparruko deskonexio digitalerako eskubidea bermatzen du.

- **Deskonexio digitalerako eskubidea lan esparruan**

    a. Langileek eta enplegatu publikoek deskonexio digitalerako eskubidea izango dute, legez edo hitzarmen bidez ezarritako lanaldiaz kanpo haien atsedenaldia, baimenak eta oporrak errespeta daitezen, bai eta norberaren eta familiaren intimitatea errespeta dadin ere.
    b. Eskubide hau egikaritzeko modalitateak lan harremanen nolakotasunaren eta xedearen araberakoak izango dira; familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eskubidea indartuko dute, eta negoziazio kolektiboan ezarritakoaren mendean egongo dira edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean adostutakoaren mendean.



CERTIFICACIÓN DEL SISTEMA DE GESTIÓN DNV ISO 9001 · ISO 45001

Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

c. Enplegatzaileak, aldez aurretik langileen ordezkariei entzunda, langileei –baita zuzendaritza postuetan daudenei ere– zuzendutako barne politika bat landuko du, zeinetan definituko diren deskonexio eskubidea egikaritzeko modalitateak, batetik, eta neke informatiboko arriskua ekiditeko tresna teknologikoak zentzuz erabiltzeko prestakuntza eta sentsibilizaziorako ekintzak, bestetik. Bereziki zainduko da deskonexio digitalerako eskubidea, lana oso-osorik edo partez urrutitik egiten den kasuetan, baita tresna teknologikoak laneko helburuekin bere bizitokian darabiltzan enplegatuaren kasuan ere.

- **Protokoloaren aplikazio esparrua**

Protokolo honetan jasotako neurrien hartzaileak MATIA osatzen duten sozietateetako langile guztiak izango dira, talde eta kategoria profesionala edozein izanik ere, akordio bidez lana osorik edo zati batean urrunetik egitea ezarrita duten pertsonak eta erakundearen barruan zuzendaritza postuak dituzten pertsonak barne hartuta.

- **Neurriak**

Eskubide hori betetzen dela bermatzeko eta salbuespenak arautzeko, neurri hauek erabaki dira:

a. Langileek lanalditik kanpo eta atsedenaldietan, baimenetan, lizentzietan edo oporretan gailu digitalei ez erantzuteko duten eskubidea aitortzen da, hurrengo c) puntuan ezarritako premiazko arrazoi justifikatuak daudenean izan ezik.
b. Oro har, gai profesionalei buruzko komunikazioak lanaldiaren barruan egingo dira. Hortaz, c) puntuan ezarritako larrialdi egoeren kasuan izan ezik, ez da telefono deirik egingo eta ez da mezu elektronikorik edo beste edozein motatako mezurik bidaliko lanalditik kanpo.
c. Langileek ezein komunikaziori ez erantzuteko eskubidea dute eguneko lanaldia amaitu ondoren, salbuespen hauekin:
    i. Justifikatutako salbuespenezko inguruabarrak daudenean, edota pertsonei arrisku larria edo enpresei kalte handia eragin diezaieketen kasuak direnean eta haien premia dela eta neurri bereziak hartu edo berehalako erantzunak eman behar direnean.
    ii. Guardiak egiten dituzten langileak.
    iii. Enpresaren hitzarmenean aurreikusitakoaren araberako prestasun bat itunduta duten pertsonak, lan errekerimendua jakinarazi ahal izateko, aldizkako langile finkoei deitzen zaien bezala.
d. Era berean, lan denbora hobeto kudeatzeko, neurri hauek hartuko dira:

i. Absentzia aldietan erantzun automatikoak programatzea, noiz ez den egongo adierazita eta absentzia horretan zereginak esleitu zaizkion pertsonaren helbidea edo harremanetarako datuak jakinarazita.
ii. Langile bakoitzaren lanalditik kanpoko prestakuntza deialdiak, bilerak, bideokonferentziak, aurkezpenak, informazioa eta abar saihestea.
iii. Aurreko paragrafoan adierazitako saioetarako deialdiak behar besteko aurrerapenaz egitea, pertsonek beren lanaldia planifikatu ahal izan dezaten.
iv. Deialdietan hasierako eta amaierako ordua eta aztertu beharreko dokumentazio guztia adieraziko dira, landu beharreko gaiak aldez aurretik ikusi eta aztertu ahal izateko eta bilerak ezarritakoa baino gehiago ez luzatzeko.

Deskonexio digitalerako eta lan deskonexiorako eskubidea eraginkorra izan dadin, eskubide hori baliatzen duten pertsonei inolako zehapenik ezarriko ez zaiela eta jardunaren ebaluazioetan eta mailaz igotzeko aukeretan kalterik eragingo ez zaiela bermatuko da.

Neurri horien osagarri gisa, eskubide hori zabaldu, garatu eta/edo hobetuko duten jarduteko protokoloak ezarri ahal izango dira enpresaren esparruan.

# 18. Ustelkeria eta eroskeria

Gure sektorean pertsonekin harremanetan egiten dugu lan, maila guztietan; horregatik, oso garrantzitsua da erabiltzaileei eta beraien familiei eragin liezaiekeen iruzurrezko portaerarik ez egotea. Ustelkeriaren eta eroskeriaren harira hiru talde garrantzitsu bereizten ditugu:

- Egunero erabiltzaileekin lan egiten duten langile eta boluntarioak. Talde horretan, portaera txarrek egoera ahulean dauden pertsonei eragingo liekete zuzenean. Kontuan izan behar dugu egoitzetako eta ospitaleko egoiliarrak adinekoak izaten direla eta mendekotasun maila altua izaten dutela. Baten batzuek dementzia dute eta ezin dute bereizi langilearen edo boluntarioaren aldetik portaera desegokirik jasotzen duten. Prebentzio gisa, pertsona guztien (langileen, boluntarioen, erabiltzaileen eta beraien senitartekoen) eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen bizikidetza gidaliburua landu dugu. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Euskadiko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen betebehar eta eskubideen gutuna onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak hartu ditugu gidaliburu horren oinarri gisa.

- Erakundearen administrazio kudeaketaz arduratzen diren langileak: kontabilitatea, erosketak, azpiegiturak, giza baliabideak, informatika eta abar. Talde horrek bereziki sentikorrak diren datuak eta gaizki erabil daitekeen informazioa lantzen ditu. Esparru horretan lege hausterik gertatzeko arriskuak gutxitzeko barneko lan politikak jorratu ditugu. Neurri horietako asko zigor penalak prebenitzeko eskuliburuan edo kontrol mekanismo gisa jasota daude. Aipagarriak dira, besteak beste, hornitzaileen kudeaketa integralerako prozedura, erabaki garrantzitsuak hartzeko pertsona askoren onarpena eskatzen duen botere sistema zorrotza, kanpoko auditoretzak eta kanpoko aholkularitza, zerga gaietarako. Auditorien eta Izendapenen Batzordea arduratzen da horretaz guztiaz; izan ere, erakundearen jardunari lotutako ikuskaritza lana, informazio lana eta proposamenak egiteko lana betetzen du.

- Erakundeko zuzendaritza organoa eta hura ikuskatzen duen Patronatua. Talde horrentzat (eta gainerako bientzat ere bai), arrisku penalak prebenitzeko eskuliburua prestatu du Fundazioak.

Zigor arloko eskuliburuaren helburua da delituak eraginkortasunez prebenitzea, eta, bertan, delituen aurka borrokatzeko neurriak zehazten dira, **kapitalak zuritzea** barne.

Hartara, langileei eta erakundeetako kideei delituak prebenitzen laguntzen dien mekanismo gisa aritzen den plan bat dugu aurrean; izan ere, legez zigor daitezkeen jokabideak eta prozedurak (norberarenak nahiz hirugarrenenak, erakundean edo jardunean gertatzen direnak) identifikatuko dituen mekanismoa eskaintzen die.

Era berean, arrisku penala dakarren egoera baten aurrean nola jokatu zehazten laguntzen die erakundeei, legeria eta egoera prozesala aintzat hartuta, beren interesen defentsa bermatzeko.

Eta, azkenik, indarrean dagoen legeria benetan edo beraien ustez urratu egin dela antzematen dutenean, egoera horiek guztiak ebazteko eta tramitatzeko kanal egokia ere eskaintzen die.

Eskuliburua egiteko, erakundean gerta litezkeen arrisku penalak identifikatzeko aukera eman duen metodoa erabili da. Horretarako, Fundazioaren ohiko funtzionamendu normala aztertu da: ohiko jokabideak, eguneroko jarduna betetzeko prozedurak eta barne araudia eta legeak erakundeen jardun eremuan agintzen dituen arauak betetzeko protokoloak. Hartara, definitu eta zehaztu egin dira, besteak beste, erakundeen jarduera eta antolamendu ereduan erabiltzen diren prozedurak.

Behin erabiltzen diren prozedurak zehaztu ondoren, erakunde bakoitzean dauden arrisku penalak identifikatu dira, eta gertatzeko aukeraren arabera sailkatu. Hala, erakunde bakoitzari egokitutako arrisku mapa lortu dugu. Identifikazioa egiteko ikuspegi bikoitza erabili dugu: edozein erakundek berezkoak dituen arriskuak batetik, eta sektoreari eta jarduera ereduari lotutako arriskuak bestetik. Fundazioak ibilbide sendoa du gizarte erantzukizunean eta enpresako eta laneko etikan; hartara, onartutako erantzukizun korporatiboari buruzko dokumentazioa eta informazioa ez ezik, laneko arriskuen planean, ingurumen konpromisoetan eta ISO ziurtagirietan zehaztutako informazioa ere bildu da. Izan ere, erakundeetan dagoeneko txertatuta dauden ekintza mekanismoak dira, baina errefortzu neurriak ezarri zaizkie, prebentzio eredua eraginkorragoa izan dadin.

Ildo beretik, pertsona juridikoei beraiengan eragin lezaketen lege urraketak jakinarazteko salaketa bide bat gaitu da, beharrezko egiaztapenak edo ikerketak egin eta neurri egokiak har ditzaten.

Hona hemen gertatzeko arriskurik handiena duten delitu penalak:

- Sekretuak jakinaraztea eta informazio informatikoa bidegabe erabiltzea.
- Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak.
- Langileen eskubideen aurkako delituak.

Orain arte ez da ustelkeria kasurik egon erakundean eta, beraz, ez da inoiz langilerik kaleratu ustelkeria dela eta. Era berean, kanpoko eragile batek ere ez du inoiz erakundea salatu ustelkeria kasuengatik.

Fundazioak delituak egitea saihesteko mekanismoak ditu indarrean:

- Segurtasun agiriaren erabiltzaileen eginkizunei eta betebeharrei buruzko dosierra.
- Etika eta jokabide kodea.
- Lan arriskuen prebentzio plana.
- Erakundeen kontuen auditoretza.
- Datuen babeserako segurtasun eskuliburua.
- Aldian aldiko auditoretzak zentro guztietan.
- Gobernu korporatiboaren urteko txostena.

Legearen arabera beharrezkoa denez arriskuak eta eskuliburuaren urraketak jakinaraztea, salaketa kanal bat sortu dugu, eskuliburuaren edukia nahiz indarrean dagoen araudia urratu dela uste edo antzeman duen edonork salaketa jar dezan. Era berean, eskuliburuari eta haren betetzeari edo interpretazioari buruzko zalantzak eta iradokizunak aurkezteko ere erabili ahal izango da kanala.

Langileen eta hirugarrenen arteko lankidetza errazte aldera, salaketa kanalaren erabilgarritasuna izango da oinarrizko printzipioa. Halatan, erabiltzeko aukera bat baino gehiago ahalbidetu da eta salaketa jartzen duten pertsonen konfidentzialtasuna bermatuko da betiere. Langileek bestelako komunikazio bide informalagoak ere badituzte eskura, hala nola hierarkia edota giza baliabideen departamentuaren edo osasun eta segurtasun batzordearen aurrean aurkezteko aukera.

Azken urteetan eta orain arte ez da inolako salaketarik jaso. Gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, horren inguruan sentsibilizatzeko eta ezagutzera emateko kanpaina jarriko dugu abian.

Prestakuntza hori talde hauentzat egin zen:

1. Zerbitzu zentraletako langileak: bilera bat egin genuen eskuliburuaren oinarrizko ezaugarriak eta puntu garrantzitsuenak azaltzeko. Gure jarduerak berrikusi genituen, ikusteko non zeuden arriskurik handienak eta nola antzeman eta salatu.
2. Patronatua eta zuzendaritza taldea: eskuliburua bidali, irakurri eta baliozkotzea. Patronatuaren bileretako batean, gaiari buruzko monografiko txiki bat egin zen, zalantzak edo ekarpenak egon zitezkeelakoan.

Sartu berri diren langileen kasuan, prestakuntza Matia Eskola hezkuntza plataformaren bidez egin da.

Jardunean zeuden gainerako langileen kasuan, berriz, prestakuntza 2024an edo 2025ean emango da, Matia Eskola hezkuntza plataformaren bidez eta dagokien arduradunak jasotako informazioaren bidez.

- **Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea**

Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea («Matia Fundazioko, Matia Institutuko, Hurkoa Fundazioko, Hurkoa-Zainduz Fundazioko eta Gerozerlaneko GEHEB») Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008ko ekainaren 30az geroztik egiaztatutako organoa da (ekainaren 12ko 46/2007 Foru Dekretuari jarraikiz).

Hainbat erakundetako 12 profesionalez, boluntarioz eta hainbat diziplinatako pertsonaz osatuta dago. Diziplina horien artean, medikuntza, psikologia, zuzenbidea, terapia okupazionala, administrazioa, gizarte lana, erizaintza, klinikako laguntzailea eta ikerketa aipa daitezke.

Batzordea aholku emailea, independentea eta akonfesionala da. Hauek dira haren funtzio nagusiak:

Laguntza prozesuan inplikatutako profesionalen, erabiltzaileen eta esparru soziosanitarioko erakundeen arteko gatazka etikoak sortzen dituzten egoeretan hartu beharreko erabakiak aztertu, aholkatu eta erraztea.

1. Laguntza prozesuan inplikatutako profesionalen, erabiltzaileen eta esparru soziosanitarioko erakundeen arteko gatazka etikoak sortzen dituzten egoeretan hartu beharreko erabakiak aztertu, aholkatu eta erraztea.
2. Eztabaida metodoan oinarritutako jarduera protokoloak lantzea eta berrikustea, gatazka etikoak sortzen diren egoerak tratatzeko.
3. Erakundeei eta zentro soziosanitarioei gatazka etikoak sortzen diren egoeretan laguntzea.
4. Batzordeak ordezkatzen dituen erakundeetako profesionalen bioetikako prestakuntzan eta beste erakunde batzuek eskatutako prestakuntzetan laguntzea.
5. Kideen bioetikako prestakuntza jarraitua.
6. Bioetikarekin zerikusia duten mota orotako jarduerak egitea, esparru soziosanitarioko profesionalen artean zein erabiltzaileen eta erakundeen artean hedatzeko.
7. Kideei bioetikaren inguruan antolatzen diren eta interesa izan dezaketen jarduera guztien berri ematea.
8. Gizarte ikerketako proiektuak aztertzea, aholkularitza ematea eta, dagokionean, onartzea.

### Harremanetan jartzea eta eskaerak izapidetzea

Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeari kontsultak egin ahal izango dizkiote Gipuzkoako zerbitzu soziosanitarioetako profesionalek, erabiltzaileek, haien senideek, legezko ordezkariek, kasuan interes legitimoa egiaztatzen duten beste batzuek eta Gipuzkoako zerbitzu soziosanitarioetako zuzendaritza organoek, bide hauen bidez:

- Helbide elektronikoa: CEIS@matia.eus.
- Edozein kide; telefonoak: 943 224 643 / 620 436 059.
- Presentziala: Pinu bidea 35, Donostia.
- Izapideak Matiaren webguneko atal baten bitartez egiteko aukera dago.

Eskaera jaso ondoren, Etika Batzordeak kasua baloratu eta aztertuko du, eta deliberazioan eta bere aholkularitza funtzioan laguntzeko jarraitu beharreko prozedura ezarriko du.

Kasua premiazkoa bada, Batzordeko pertsona bat eskatzailearen arduradun eta solaskide izendatuko da, harekin harremanetan jarriko da eta jarraitu beharreko prozedura behar bezala programatuko du.

Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeak, bere esku hartzea amaitu ondoren eta bidezkoa denean, gomendioei buruzko txosten bat egingo du eta eskatzaileari baino ez dio emango. Prozedura eta txostenak konfidentzialak izango dira.

### 2024ko jarduera

| | |
|---|---|
| **Bilera kopurua** | **10** |
| **Eskaera kopurua** | **1** |
| **Eztabaidatutako etika kasuen kopurua** | **2** |
| **Berrikusitako ikerketa proiektuen kopurua** | **8** |
| **Materialen kopurua** | **1 (UEPrako gida)** |

| **Jasotako prestakuntza** | |
|---|---|
| **Ordu kopurua** | **45** |
| **Batzordeko kideen kopurua** | **5** |

| **Emandako prestakuntza** | |
|---|---|
| **Ordu kopurua** | **22** |
| **Parte hartzaileen kopurua** | **25** |
| **Ikastaro kopurua** | **1** |
| **Batzordeko kide diren prestatzaileen kopurua** | **2** |

Nabarmentzekoa da «Arretaren eta zaintzen plangintza partekatua komunitatean» gaiari buruz 2024ko urriaren 25ean egindako jardunaldia. Matia Gunea - Lugaritzeko Lugaritz aretoan izan zen, Etika Batzordeak antolatuta, eta 60 lagun bertaratu ziren. Gainera, urtean zehar hainbat forotan hartu dugu parte (blogetan, podcastetan eta irratian).



Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

# 19. Ingurumenari lotutako gaiak

Kudeaketa politika integratuak zehazten du Matia Fundazioak ingurumenaren alde duen konpromisoa. Izan ere, klimaren aldeko ekintzari lotutako garapen jasangarrirako helburua lortzeko, eta, ildo horretan, ingurumena zaintzeko neurri eta sistema egokiak indartzeko eta gure jarduerak sortzen dituen edo sor litzakeen ingurumen inpaktuak murrizteko konpromisoa hartu du erakundeak. Gainera, ingurumeneko arduraduna den teknikari bat dugu, eta pertsonak motibatzeko apustua egiten dugu, kalitatea, arriskuen prebentzioa eta ingurumena sustatzeko tresna egokia delakoan.

Gure jardueraren ondorioz sortzen diren ingurumen alderdiak (zuzenak eta zeharkakoak, egoera normalen, egoera anormalen eta larrialdi egoeren ondoriozkoak) kategoria hauetan sailka ditzakegu:

- Kontsumo energetikoak eta lehengaienak, baliabideen izaeraren arabera.
- Atmosferara egindako isurketak, isurtze fokuaren arabera (biomasa eta ibilgailuak).
- Hondakin uren isurketak, kolektorera isurtzeko puntuaren arabera.
- Sortutako hondakinak (geldoak, hiri hondakin solidoak eta arriskutsuak).
- Ingurumen zarata edo kutsadura akustikoa: ingurunean pertsonei enbarazu, arrisku edo kalte egiten dieten zaratak edo bibrazioak egotea.
- Zerbitzu hornitzaileen ingurumen portaera.

Duten izaera dela eta, gure jarduerek ez dakarte ingurumen arrisku larririk, eta **gure zentroak ez daude eremu babestuetan kokatuta**, baina arriskutzat har daitezkeen intzidentziak identifikatu eta kontrolatu egiten dira. Aipaturiko aldian ez dugu inolako isunik jaso ingurumenari lotutako legeak edo araudia urratzeagatik. Era berean, ez dugu hirugarrenen erreklamaziorik jaso kutsaduragatik. Horretarako, Fundazioak erantzukizun zibila estaltzen duen bermea du (150.000 €-ra bitartekoa), indarrean dagoen legeriari jarraikiz, kutsadura dela eta hirugarrenei nahigabe eragindako gorputz kalteengatik, kalte materialengatik eta ondoriozko galerengatik, hau da, materia edo substantziak lurrean, uretan edo airean sartzeagatik edo sakabanatzeagatik, betiere haien kalitaterako arriskutsua edo kaltegarria den narriadura eragiten badute.

Datozen urteetarako klima aldaketa arintzeko helburu gisa, Fundazioaren bi zentro berri ireki dira, biomasaren eta gasaren kontsumo hibridoko galdarekin. Halaber, beste zentro batzuetako galdarak ordeztu dira galdara efizienteago batzuekin, berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko. Kontsumoa ere murriztu da, eta autokontsumorako plaka fotovoltaikoak ipini dira. Hori guztia datozen urteetan nabaritu beharko litzateke.

Gainera, egoitzen liburu berdea sortzen parte hartu dugu beste egoitza batzuekin eta Aldundiarekin batera, 2030-2050 aldiko helburuei begira ingurumen jardunbide egokiak garatzeko.

Erakundearen kontsumoak egoitza plazen araberakoak dira (891 plaza)*, eta, beraz, Matia Fundazioa, Gerozerlan eta Petra Lekuona hartzen dira kontuan, Institutuak eta Goxarak ez baitute egoitza plazarik eta, beraz, ez dute beren kontsumoen jarraipenik

egiten, paper kontsumoarena izan ezik, eta azken hori murriztu egin da, zero papererako joera dela eta. Gainera, erabilitako paper oro birziklatua da.

Ondoren, kontsumoek aurreko urteekin alderatuta izan duten bilakaerari buruzko datuak aurkeztuko ditugu, kontuan hartuta 2023ko datuak osatu gabe zeudela* (urte horretan bi zentro berri ireki ziren eta ez dugu kontsumoen datu errealik). 2024tik aurrera, instalazio guztiak martxan direla, datuak osatuta daude.

- Argindar kontsumoa kWh-tan

| | MATIA | GEROZERLAN | INSTITUTUA | ZAINTZATARI | GOXARA | MATIA ENEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2020 | - | - | - | - | - | - | 3.526.990 |
| 2021 | - | - | - | - | - | - | 3.575.378 |
| 2022 | - | - | - | - | - | - | 3.514.581 |
| 2023 | 2.623.641 | 757.225 | - | - | - | - | 3.380.866 |
| 2024 | 2.380.213 | 726.051 | - | - | - | - | 3.106.263 |

- Ur kontsumoa m3-tan

| | MATIA | GEROZERLAN | INSTITUTUA | ZAINTZATARI | GOXARA | MATIA ENEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2020 | - | - | - | - | - | - | 86.607 |
| 2021 | - | - | - | - | - | - | 86.185 |
| 2022 | - | - | - | - | - | - | 90.248 |
| 2023 | 85.479 | 19.717 | - | - | - | - | 105.196 |
| 2024 | 86.826 | 28.899 | - | - | - | - | 115.725 |

- Gas kontsumoa kWh-tan

| | MATIA | GEROZERLAN | INSTITUTUA | ZAINTZATARI | GOXARA | MATIA ENEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2020 | - | - | - | - | - | - | 5.961.761 |
| 2021 | - | - | - | - | - | - | 5.327.580 |
| 2022 | - | - | - | - | - | - | 5.393.770 |
| 2023 | 2.620.690 | 541.870 | - | - | - | - | 3.162.560 * |
| 2024 | 2.956.588 | 945.440 | | | | | 3.902.028 |

- Biomasa kontsumoa kWh-tan

| | MATIA | GEROZERLAN | INSTITUTUA | ZAINTZATARI | GOXARA | MATIA ENEA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2020 | 430.659 | - | - | - | - | - | 430.659 |
| 2021 | 501.547 | - | - | - | - | - | 501.547 |
| 2022 | 347.028 | - | - | - | - | - | 347.028 |
| 2023 | 347.028 | - | - | - | - | - | 347.028* |
| 2024 | 491.960 | 96.632 | - | - | - | - | 588.592 |

Ikus dezakegunez, kontsumoek behera egin dute zentro berriaren daturik ez dagoelako, baina uraren kontsumoak gora egiten jarraitzen du, eta baliteke egoitza unitateetan garbigailu eta ontzi garbigailu gehiago jartzeagatik izatea (PCP ereduari begira); arropa asko jada ez da garbitegira bidaltzen.

**Isurketen, zaborren eta hondakinen kudeaketa egokia**[1]

Gure erakundearen **CO2 isurketa zenbatetsiak** (erabilitako datuak erakunde osoaren datu orokorrak baitira) karbono aztarna kalkulatzeko Eusko Jaurlaritzaren tresnaren (2020) bidez zehazten dira, eta erabilitako erregai eta energia motak eragindakoak dira gehienak. Fundazioan erregaien erabilera arduratsua sustatu dugu, 2024ko datuetan hiru irismenak barne hartuta (zuzeneko emisioak, energia bidezko zeharkako emisioak eta zeharkako beste emisio batzuk).

Fundazioaren egoitzako eta ospitaleko plaza bakoitzeko **1,53 tona CO2** kalkulatu dira. Kalkulu tresnaren arabera, **1.456 tona CO2** isuri dira guztira, hau da, aurreko urtean baino zerbait gehiago, baina oso aldaketa txikiarekin; izan ere, gainditu egin da hasierako datuak 2030erako % 10eko proportzioan murrizteko helburua, eta orain mantentzen saiatu beharra dago.

| | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Tonak plazako** | 2,64 | 2,36 | 2,35 | 1,46 | **1,53** |
| **Tonak, guztira** | 2249 | 1990 | 1985 | 1286 | **1456** |

Argi artifizialaren bidezko **argi kutsadura** ere kontrolatzen da, ingurumenari eta biodibertsitateari dagokienez, inguruko espezieen ugalketa modua ez eragozteko. Hona hemen argi kutsadura kontrolatzeko jardunbide egoki batzuk:

- Benetan behar duguna soilik argitzea.
- Benetan behar dugunean soilik erabiltzea.
- Horizontaletik gorako argi fluxua saihestea.
- Argi intrusioa (argitu nahi dugun eremutik kanpo doan argitasuna) saihestea.
- Behar dugun argitasun maila soilik erabiltzea; hala, piztu eta itzaltzeko denbora ez ezik (2. puntua), argiaren intentsitatea bera ere kontrolatzea.

**Kutsadura akustikoari** dagokionez, gure zentrorik gehienak bizitegi eremuetan daudenez, zaratarik handiena ibilgailuen zirkulaziotik eta karga eta deskargetatik dator. Eremu horietan eraginik ez izateko, hondakinak biltzeko eta materialak kargatzeko eta deskargatzeko ordutegiak hartzen ditugu kontuan, eta saiatzen gara jarduera horiek merkataritza orduetan egiten, ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko, bai gure erabiltzaileengan, bai gure ingurunean. Gure zentroen barruan ere jardunbide egokiak

[1] Guztizko plazetan ospitale plazak ere hartu dira kontuan aurten.

sustatzen ditugu, zarata fokuak saihesten baititugu otordu eta siesta orduetan, gure erabiltzaileen eta langileen ongizatea hobetzeko. Gainera, zarata txikiagoa sortzen duten zoru porotsuak ditugu.

Gure jardueraren ondorioz **sortutako hondakinik** gehienak etxeko hondakinak eta hondakin sanitarioak dira, baina baita hondakin arriskutsuak ere. Horretarako, Kudeaketa Integratuko Eskuliburuan jasotako hondakin arriskutsu eta sanitarioak kudeatzeko sistema bat dugu, dagozkion prozedurekin.

Erakundean sortutako hondakinak hondakin motaren arabera bereizten dira, eta gehienak erabat errebalorizatzen dira edo suntsitzeko baimena duten enpresek kudeatzen dituzte.

Janaria alferrik galtzeari dagokionez, ahalik eta gehien murriztu da produkzio eremuan, eta ez da iristen guztizkoaren % 2ra. Eskaerak beharrezkoa denera mugatu dira. Prestatu beharreko menu kopuruaren arabera errezeta bakoitzean erabili beharreko osagaien kopuru zehatza kalkulatzen duen aplikazio bat erabiltzen hasi gara, eskaerak eta alferrik galdutako janaria ahal den neurrian doitzeko.

2024an honako hauek izan dira, plaza kopuruaren arabera haztatuta:

| **HIRI HONDAKINAK, KILOTAN** | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | **2024** | **KUDEATZAILEA** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Hondakin organikoen kiloak** | 413,6 | 370,7 | 371,6 | 321,57 | 404,09 | % 100 errebalorizatuta |
| **Errefus kiloak** | 1254,8 | 998,04 | 1009,7 | 1278,18 | 1255,09 | % 100 kudeatzaile mankomunatuaren esku |
| **Paper eta kartoi kiloak** | 727,3 | 82,65 | 356,01 | 155,52 | 145,47 | % 100 errebalorizatuta |
| **Ontzi kiloak** | 564,2 | 302,8 | 214,84 | 278,64 | 328,93 | % 100 errebalorizatuta |
| **Beira kiloak** | 16079 | 15780 | 15916 | 3475** | 329 | % 100 errebalorizatuta |

**Beira asko murriztu da; izan ere, sukaldean kontsumitzen zen batez ere, eta hornitzaile berriak plastikozko botilak edo brikak bidaltzen ditu orain.



Pinu Bidea, 35 | 20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN | (+34) 943 31 71 00 | info@matia.eus | www.matiafundazioa.eus

| BESTE HONDAKIN BATZUK, KILOTAN | | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | KUDEATZAILEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira sortutako hondakin arriskutsuak, kilotan (aerosolak, ontzi kutsatuak, bateriak, parafina)** | | 1723 | 895 | 476 | 1017 | 937 | Hondakin |
| **Kudeatutako hondakin geldoak eta tamaina handikoak, kilotan** | | 1980 | 7820 | 3990 | 8180 | 7660 | San Marcos |
| **60 l-ko pila bidoia** | | 1 | 1 | 1 | 0 | 0 | Ekopilas |
| **Erabilitako landare olioak, kilotan** | | 1140 | 1950 | 1110 | 860 | 710 | Ekograss |
| **Hondakin sanitarioak, kilotan** | **Sanitarioak** | 37466,3 | 13864,2 | 18078,3 | 982,2 | 537,7 | Elirecon |
| | **Ebakitzaileak edo zorrotzak** | 115,6 | 100,1 | 45,3 | 32,45 | 45,9 | |
| | **Zitostatikoak** | 71,55 | 22,85 | 16,95 | 6,85 | 16,4 | |
| | **Iraungitakoak eta hondakinak** | 338 | 358 | 355 | 539 | 781 | |

matia

gogoz bizi



CERTIFICACIÓN DEL SISTEMA DE GESTIÓN DNV ISO 9001 · ISO 45001